


MARCELINO SOROA LASA

G A B O N

¡¡AU OSTATUBA!!

ANTON KAIKU



AUSPOA LIBURUTEGIA

JB-874

J. Billas 10432

Priority

Oct. 1962

G A B O N
¡¡AU OSTATUBA!!
ANTON KAIKU

AUSPOA LIBURUTEGIA

- 2 -

Colección Auspoa - Plaza Santa María, 2 - Tolosa

Ordaindu bearrak:

Urte betekoa: 180 peseta

Atzerrian: 275 peseta.

Onguilleak: 350 »

Ale bakarra: 25 »

MARCELINO SOROA LASA

G A B O N

¡¡AU OSTATUBA!!

ANTON KAIKU

AUSPOA LIBURUTEGIA

DEPÓSITO LEGAL S. S. 361—1961

N.º DE REGISTRO 834—61

ARKIBIDEA

MARCELINO SOROA LASA	9
Erabili degun ortografia	13
GABON	15
¡¡AU OSTATUBA!!	65
ANTON KAIKU	107

MARCELINO SOROA LASA

Marcelino Soroa Lasa Donosti'n jayo zan, 1848'garrengo Apirillaren 27'an, Puyuelo kalean (gaur Fermín Calbetón), ta San Bizenten batayatu zuten.

Valladolid'eko eskola nagusian ikasi ta lege gizon egin zan, bañan etzion bizimodu orri segitu. Donostira etorri ta gimnasia erakutsi zuan Gimnasio Municipal'ean, Garibay kalean zeuden eskolen azpian.

Amadeo de Saboya Españiko errege jarri zutenean, bertso batzuk atera omen zitun errege berriaren kontra. Agintariak asarretu ta Soroak Frantziko Euskalerrira joan bear izan zuan.

Andik laister, karlisten bigarrengo gerratean, Donostiar asko igaro zan Bidasoaz beste aldera. Ziburu'n El Trueno zeritzion soziedade edo lagun-arte bat sortu zuten Donostiar oyek, umore piska bat jartzeagatik. Zezenak ere izan omen zituzten.

El Trueno lagun-arterako antolatu zuan Soroak "Iriyarena" deritzayon Donostiar edo "Irutxulotar oituren" zarzuelatxo. "Iriyarena" erderaz egiña dago, bañan noizean bein

euskerazko puskak baditu. Oso jendearen gustokoak izan ziran euskerazko puska oyeak.

Toribio Alzaga ere ayen artean zan. Etzuan asko pentsatuko bere denbora guziko bizimodu sortzen ari zitzayola teatro jai artan.

Gerra bukatuta, Donostira berriz ere, ta gimnasia erakusten len bezela.

Donostiko langille, dendari ta merkatariaak Unión Artesana zeritzayon soziedade edo alkartean biltzen ziran. Etxe oneko jendea, berriz, La Fraternal zeritzayonean. La Fraternal Lasala plazatxoan zegoan. Artan jayo bear zuan euskerazko teatroak.

1878'garrengo Mayatzaren 12 ta 19'an, Kale Nagusiko Teatro Principal'ean (gaur esaten degunez, Teatro Zarrean), aurkeztatu zuten "Iriyarena". Emen ere oso jendearen gustokoak euskerazko puskak. Urte artan bertan argitaratu zuan komeri ori Omar-Celin-Oasor izengoitiarekin.

Oso osorik euskeraz antolatu zuen lenengo komeria, ANTON KAIKU da. Onek eman zion asiera euskerazko teatroari. Soroaren beste komeri danetan, "Egillearen beste jostirudiak" aitatzen diranean, ANTON KAIKU dago beti lenengo tokian, ta GABON aren urrena.

Bañan GABON agertu zan aurrena jendearen aurrean. Ara zer esaten dan komeri oye-tako argitaraldietan, beren azalean, izenaren azpian:

"GABON... Aurkeztatuba olagara aundiya-ekin Donostiko Biltoki Lenendikoan Azaroaren 6'ean 1880'garren urtian eta berriro egilleak moldatuba."

"ANTON KAIKU... Aurkeztatuba lenbiziko aldiz Donostiko Biltoki Lenendikoak olagara aundiyaekin, Beltzillaren 25'an, 1882'garren

urtean, bigarren aldiyan Tolosan Otsaillaren 12'an."

¡AU OSTATUBA! (1884) irugarrena. Beraz, Auspoaren ale ontan Soroaren euskerazko iru komeri zarrenak ateratzen dira argira.

Arrezkero antolatu zitun:

¡LAPURRAK, LAPURRAK! (1884).

ALKATE BERRIYA (1885).

BARRENEN ARRA (1886).

URRUTIKO INTXAURRAK (1886).

GORGONIOREN ESTUASUNAK E D O
BOL TSA GALDU (1888).

¡ABEK ISTILLUBAK! (1894).

EZER EZ TA FESTA (1899).

BAÑAN ¡ZEIN NAIZ NI?

AUXEN DA EGUNA.

ANTON KAIKU'k Frantziko teatro zar baten gaya du.

"La Pharse du Maître Pathelin" izena du teatro orrek eta, guk dakigunez, 1470'garren urtean beintzat aurkeztatu egiten zan. Soroak gaya artu bañan gañerakoa bere gisa egosi ta antolatu zuan.

ANTON KAIKU'ren ale bana bialdu omen zien Victor Hugo'ri ta Mistral'i. Biak erantzun zioten eskutitz bana.

Euskal teatroa ez ezik, beste lan asko ere asmatu zitun Soroak bai euskeraz eta baita ere erderaz, garai artako periodiku ta paper guzietan.

Soroa 1902'garren Uzta'ren 20'ean il zan, 58 urtekin.

Orra zer zion Pepe Artola'k Soroaren erio-
tzakoan:

"Ori izandu da, ogei ta amar urte abetan
Aitor-en izkerari gogoz jarraitu diona, azal-
duaz gazte oso trebe eta bikañak aundi edo
gizon egitera.

...Umoria, borondatia eta farra zan dana.
Biltokian euskerazko moldaera eta egintzak
orrek lenbiziko azaldu zituben; gazteari oñez
edo lenengo pausoak berak erakutsi zizkigun.
¡Amaika izerdi eta ernegazio izan du gugatik,
eta ala ere beti parra ezpañetan!..." (1)

(1) Itz-aurre ontan eman ditugun berri guztiak,
onako jaun auei zor dizkiegu:

Luis A. Chindurza, Soroaren biloba bakarra, bial-
dutako bi eskutitz.

A. Navas, revista SAN SEBASTIAN, 20-1-1956.

Antonio Labayen. "Euskel Antzerkiaren edestira-
ko apur batzuek", Tolosa, 1933, ta jaun berak bial-
dutako eskutitza.

Joaquin Muñoz-Baroja, bialdutako eskutitz bat
Aita Justo Mari Mokoroa, emandako argitasun bat.
Milla esker.

ERABILLI DEGUN ORTOGRAFIA

Gorde nai izan ditugu egilleak jarritako soñu edo ots guztiak, gaurko modura jarri baditugu ere. Orrela: ch = tx; ce, ci = ez, zi; gue, gui = ge, gi, ...

Gorde nai izan ditugu ere soñu edo ots guztiak, gaurko egunean denak edo geyenak erabiltzen ez badituzte ere. Orrela: moduba, mendiya, mundu (b) ontan, ...

Ez degu nai izan beste ots edo soñu batzuek zuzentzea. Orrela: beizik, bakuitza, txinistaraziko loke, ...

Ez ta ere beste batzuk osatu. Orrela: *etxea*, *etxera* bearrean; *kontsejua*, *kontsejura* bearrean, ...

Z ta s nastuta zeudenean, bakoitza bere tokian jarri degu.

H'rik ez da emengo euskeran erabiltzen, da orregatik *ahhh* ta *ehhh* bearrean aaaa ta eeee jarri izan degu.

Itzak alkarri itsatsita zeudenean, alkarren-gandik berezi edo apartatu izan ditugu, oraingo modura. Noizean bein, ordea, letrarik falta zanean, *comilla* txiki batez balliatu gera. Orrela: kantatze'ekala, ...

Bañan *ardipaten*, *txurruptat*, ... zeuden bezela utzi ditugu, beren soñua aldatu ez zedin.

Galdetzeko eta arritzekoak (? , j), batean bat, urrengoan bi, egilleak jarri bezela.

Coma deritzayona berriz, noizean bein zegoana kendu eta etzegoana jarri bear izan degu, irakurleai beren lana arintzeagatik. Bañan ori ere, ezin bestez eta alik gutxien.

Erderaz *guión* ta *cursivos* deitzen diranak, egilleak berak jarrita zeudenak.

Egilleak erri bateko (Donostiko) euskeraz asmatu eta atera zituan bere komeri auk. Orregatik, ots edo soñuen aldetik ere, gure alegiñ guzia izan da Donosti zarreko euskera zarraren usaya gordetzea, orain iya eun urteko euskeraren kutsua errespetatzea.

G A B O N

Irutxulotar oituren jostirudia euskara
nastuban eta egintza bakarran

Lenengo argitaratza: Peña eta Pozo-ren moldizkiran,
Garibay kalia, 18 lumeroan, Donostian.

Bigarren argitaratza: Pozo eta C.^a-ren moldizkiran,
Fuenterrabia kalia, 6 lumeroan, Donostian.
(Bigarren goi segitu diogu).

On JOAQUIN SANTESTEBAN

dostirudi-zale jakintsunari

eskeña oroitzan (1)

EGINTZALLEAK

<i>On Makario</i>	On José Artola.
<i>Serenua</i>	" Miguel Arregui.
<i>Mariñela</i>	" Norberto Luzuriaga.
<i>Kaximiro</i>	" Ignacio Iribarren.
<i>Atanaxio</i>	" Bruno Olazabal.
<i>Andre Joxepa</i>	" Julio Mendia.
<i>Dama Karmen</i>	" José María Arcelus.
<i>Axentxi</i>	" Armando Larzabal.
<i>Prudentxi</i>	" Alfredo Jaussi.
<i>Lutxi</i>	" Luis Larrea.
<i>Madalen</i>	" Demetrio Muñoa.
<i>Anthoni</i>	" Justo Labayen.
<i>Joxe</i>	" Enrique Mora.
<i>Agapito</i>	" Juan Larrarte.
<i>Martzelino</i>	" J. B. Landa.
<i>Iñaxiyo</i>	" Antonio Valderrama.
<i>Erramun</i>	" Ramón Iruretagoyena.

Siñalatzallea edo apuntadoria

Toribio Alzaga.

Gentaera iruditzen da Donostiyan.

(1) Lenengo argitaratzarena jarri degu.

...Fabula, nullius veneris, sine pondere et
arte, Valdius oblectat populum, meliusque mo-
ratur, Quam versus inopes rerum, nugaeque
canorae
... ..
Ficta voluptatis causa sint proxima veris.

(Horacio, *Epistola ad Pisones*).

Gatz-gabeko itz neurtuak baño, oyen eder-
keri gabeko irudiak erriari gozoroago eta obe-
to denbora eman erazitzen diyote
... ..

Atsegin-garrizko asmariyuak egi antzekuak
izan bear dute.

EGINTZA BAKARRA

IRUDITEGIAN KALIA BRETXA ALDIAN

Egilliaren eskuyetara Andre Joxeparen etxia. Ezkerretara on Makarioena. Burtina altxatzen danian, azaltzen dira kalien erdi-erdiyan, dozena bat mutill biribillatubak eta Joxe Migel barrenen dutela makil batekin kantuban sayatzeko gisan. Batek du fraxoletia, bestiak ojalatazko txilibituba eta Erramunek farola. Guztiyak umill jantziyak, bluxa, boinekin ta ala. Alde batian gaztain ta bixigu saltzalliak.

LENBIZIKO IRUDIA

MUTILLAK, LUTXI, AXENTXI TA PRUDENTXI

<i>Lutxi</i>	¡Gaztain bero beruuuak! (ojuka).
<i>Axenxi</i>	¡Bixigu frexkuuuuuak!
<i>Prudentxi</i>	¡Bizi, biziiiiiiiyak!

- Joxe* *Entsaya* zagon bada.
- Guztiyak* Bai, bai. (*Bulla ta zala-partan*).
- Joxe* ¿Guztiyak al gaude?
- Erramun* Xeberiano falta dek.
- Iñaxiyo* Ez dek ori etorriko, zeatik aitai zigarruak ostu ta *fumatzen* topatu dik kai-arriban eta etxea eaman dik.
- Joxe* ¡Orduban agilando ederra emango zio!k!
- Atanaxio* Obe, *parte* geyago izango diagu.
- Iñaxiyo* Aizak, Atanaxio, ¿ekatzak txilibituba?
- Atanaxio* ¡Ez txinistu!
- Iñaxiyo* Mutil, eztau jango.
- Atanaxio* San Tomasetan bost kuarto *pagatu* ta ¡iret zat irukiko yat!
- Iñaxiyo* ¡Demonio kaikuba!
- Atanaxio* Kaikubao aiz i.
- Erramun* Kanta zagon, bestela gai-zuma etorriko dek asi bañan len eta *tinieblak* kantatu biarko dizkiagu.
- Joxe* ¿Zer kantatuko degu?

<i>Iñaxiyo</i>	<i>Dios te salve ongi etorri...</i>
<i>Bestiak</i>	<i>Ez, ez.</i>
<i>Atanaxio</i>	<i>En el portal de Belén...</i>
<i>Joxe</i>	<i>I bai agola Belenen.</i>
<i>Erramun</i>	<i>Agilanduen billa...</i>
<i>Joxe</i>	<i>Ori bazekiagu.</i>
<i>Iñaxiyo</i>	<i>Erregiak datoz...</i>
<i>Erramun</i>	<i>Etorri ta jun ere egingo di-</i> <i>tek Erregiak gu asi bañan</i> <i>len!</i>
<i>Iñaxiyo</i>	<i>Ate-txokuan ollar bi...</i>
<i>Joxe</i>	<i>Ate-txokuan pentsatze'ek</i> <i>ik beti, zigarrua fumatzen</i> <i>egotiatik. Zortzikua.</i>
<i>Guztiyak</i>	<i>Bai, bai. Zortzikua.</i>
<i>Joxe</i>	<i>Tira, jarri ondo. Ala. Bat,</i> <i>bi, iru.</i>

(Kantari)

Etxeko guztiari
gabonak emanaz
gatoz zelebratzera
beterikan pozez...

Atanaxio ¡Ixooo mutillak!!
Inaxiyok *desafinatzen* dik.

- Iñaxiyo* ;Emango diat belarrion-
doko bat!
- Atanaxio* Ezaun dek ez aizela San
Bizenteko koxketan ja-
yua!
- Iñaxiyo* Ik bai kantatz'ekala gaiz-
ki.
- Atanaxio* ;Nik?
- Iñaxiyo* Ik bai, Lorentziyoko ka-
lian ez diat i baño asto
aundiyagorik ikusi.
- Erramun* ;Sartu zio!k!
- Guztiyak* E, e eeee (*ojuka*).
- Joxe* Tira, tira, ez diau asarra-
tu biar gabonetan. Segi
aurrera.

(*Kantari*)

Kantatu biar degu,
gabon arratsa da,
umore onarekin
pasa zagun gaba.
Azoliyo, bixigu,
konpota, gaztañak,
gaur gaberako dira
gauzarik onenak.

Etxian gurasuak,
semiak eskian,
triste gelditu dira
suben bazterrian.
Aita pipa erretzen,
ama ardatzian,
izer afari ote degu
gabon arratsian!
Jo gora ta jo bera
gabiltza gu beti,
Belena nun ote dan
billa al baledi.
Dirurik ez degula
gezurra diruri,
izeñek jan al litzaken
kapoi bat edo bi!
Alde guztietatik
bixigu turroyak
agertzen dira, baita
galantak kapoyak.
Gu bakarrikan gaude
baraurik artian,
dirurik gabetanik
gabon arratsian.
Nekatu gera eta
baguaz emendik,
danak ibiltzen gera
dirubaren gatik.

Naiz dirurik eman ez
borondate onetik,
ez diyogu elduko
iñori lepotik.

Baguaz, etxequak,
gabon, gabon, gabon,
desiatzen diyogu
txilla bat urte on.

Eman biar dizkagu
oraiñ esker milla,
emen Jesus maitea
arkitu derilla.

BIGARREN IRUDIA

II

LENGUAK ETA AGAPITO, GERO AN- DRE JOXEPA

Agapito ¿Oí ¡ ¡ Joxe Miel !! Zube-
al zĩñaten?

Joxe Ez; gu ez gaituk gu bes-
tiak gaituk.

Agapito ¡Au arrayia ! ¿Kantatzea
al zuazte?

<i>Joxe</i>	Bai.
<i>Agapito</i>	Ni're jungo nak partian.
<i>Guztiyak</i>	<i>Bien, bien.</i>
<i>Agapito</i>	¿Nun dezute farola?
<i>Erramun</i>	Ona.
<i>Agapito</i>	¡Oi! ¡¡Itzalduba!!
<i>Erramun</i>	Eztiau bildu oraindik kan- deilla eosteko ta...
<i>Agapito</i>	Kraxkatuba zio.
<i>Erramun</i>	Bai, Atanaxiok bulkatu niok ta...
<i>Atanaxio</i>	Gezurra. Bixigu baten ezurrian txirristatu ta ero- ri in dek.
<i>Agapito</i>	Obe likek txirristatu pla- terian.
<i>Iñaxiyo</i>	Ori, ori.
<i>Agapito</i>	Guazen ba. Kantatu za- gun emen.
<i>Atanaxio</i>	¿Zein bizi da or?
<i>Joxe</i>	Andre Joxepa.
<i>Iñaxiyo</i>	¿Tronpeta?
<i>Erramun</i>	Ez, lantzeta.
<i>Joxe</i>	Atzo bat. Gure etxera etor- tzen dek artsaldero txoko- latia artzera.
<i>Agapito</i>	Tira ba. Jarri mutillak.

Joxe

"Gure Jesus onaren". A
la una.

(Kantari)

Gure Jesus onaren
gabeko etorrera
kantatu biar degu
kristabak bagera.

- Andre Joxepa* ¡Ixo, ixoo! Ez kantatzia-
tik. (*Diruba emanik.*)
- Agapito* Eskarrik asko.
- Joxe* ¿Ze eman dik?
- Agapito* Kuarto bat.
- Atanaxio* *Bien.* Ederki asten gaituk.
- Iñaxiyo* ¡Gezurra, gezurra! Txan-
pona dek.
- Agapito* ¡Oi! ¡Kuartua zala uste
nikan...
- Iñaxiyo* ¡Tranposo arrayia!
- Agapito* ¿Zein da boltsero?
- Atanaxio* Erramun farolerua.
- Erramun* Aizak i, farolerua i izango
aiz.
- Atanaxio* Mutill, ¿farola ez dek ba
eamaten?

- Erramun* Bazekiat zeatik esan dekan ori, bai.
- Joxe* Guazen Andre Pepenea ar dipaten kandeilla eostea eta beste ar dipaten kaameluak.
- Atanaxio* Ez, gaztañak.
- Iñaxiyo* Obe gendikek zigarruak eosi...
- Guztiyak* Guazen, guazen.
- Joxe* Ez. Oaiñ emen kantatu biar diagu.
- Erramun* ¿Nun? ¿Don Makarioen etxian?
- Atanaxio* Ez dik orrek ezere ematen.
- Agapito* ¡Ona dek bera! Segitzen ba'igu dendako kanekin, puskatuko zizkiuk ezur rak.
- Joxe* Sayatu egingo'aituk.
- Bestiak* Bai, bai.
- Joxe* *Corro ba corro*. Zortzikua, "Etxeko guztiari". Ala. Bat, bi, iru.
(*Kantari*)
Etxeko guztiari gabonak eman ez...

On Makario (Beti barrendik) Kanpora ortikan.

(*Kantari*)

On Makario gatoz zelebratzera
¿Ez al dezute aitzen?

(*Kantari*)

Agapito beterikan pozez...
Mundu guztiya dago
Makariokin farrez.

Makario Likixkeri lotsa gabiak.

(*Kantari*)

Makario Kantatu biar degu...
Zuazte emendik tximistak egiten...

(*Kantari*)

Makario Gabon arratsa da...
¿Ez al dezute aitu? Aguro pixa egin da oyera.

Iñaxiyo Txanpon bat...

Makario Ez.

Atanaxio Kuartua...

Makario Ezta arditikan ere.

Guztiyak Zekena, mekena,
inpernuban zaudena.

Makario Artzen badet kana...

Erramun Betor gure gana.

- Agapito* Emen dek, mutillak, emen dek.
- Guztiyak* E, e, eeee. (*Ojuka dijuaz itzuli*).

IRUGARREN IRUDIA

III

BIXIGU SALTZALLIAK TA ON MAKARIO

- Makario* (*Kanarekin*) · ¿Nun dira oyek? Jun dira. ¡Mukitsu gaizki aziyak! Ez dakit nik zer erakusten diyoten beren gurasuak, ijituen aurrak bañon okerraguak dirala.
- Axentxi* ¿Zer nai du bada D. Makario? Gabon artarako da. Tira, artu bizaigu bixigu eder bat.
- Makario* Ez, ez. Eskarrik asko. Nere tripak ez du ondo artzen.

<i>Prudentxi</i>	Egin beza prueba eta barrenen ez bada ondo arkitzen apareju bat botako diyogu ateratzeko.
<i>Makario</i>	Gañera barau det.
<i>Axentxi</i>	Orduban ez diyo tripako miñik egingo.
<i>Prudentxi</i>	Ezta ezurrik eztarriyan geldituko.
<i>Makario</i>	Gabon, gabon. (<i>Etxian sartzen da</i>).
<i>Biyak</i>	Gabon.

LAUGARREN IRUDIA

IV

AXENTXI, PRUDENTXI TA DAMA KARMEN

<i>Axentxi</i>	Ori gizon zurra.
<i>Prudentxi</i>	Ez dakit nik zertako dituzten dirubak.
<i>Axentxi</i>	Ez dizkiñ bada berekin eramango munduba ontatik.

- Prudentxi* Jan gabe bizi emen den zurkeriz.
- Axentxi* Ez diñ abildade gutxi. (*Azaltzen da Dama Karmen*). *Señora*, betor onera. Beida beza zer galantak ta freskuak.
- Karmen* Begi tristia dakar onek.
- Prudentxi* ¿Ildakoik ikusi al du begi alayekin?
- Axentxi* Gaur gabon da ta kanta bezayo billantxiku bat *alegratzen* ote dan.
- Karmen* ¿Zenbat?
- Axentxi* Ona ederra. Gutxinaz bost libra bada, oraintxen txalupatik ateriak dira.
- Karmen* ¿Zenbat, bada, zenbat?
- Axentxi* Ikusi beza ondo. Artu beza eskuban. Onen pisuba...
- Karmen* Bañan ¿zenbat? Ez nua guanteik zikintzera.
- Axentxi* Orra b a d a. Azkenekua esango diyot. Zazpi errial.
- Karmen* ¿Zazpi errial?
- Axentxi* Ta ori beorrentzat dalako.

- Karmen* ¿Udaren erdiyan gaudela
uste al dezu ta Madrilta-
rrekin ari zeala tratuban?
- Axentxi* ¡Txoratu egiñ ote gera ba-
da!
- Karmen* Garixti da oso.
- Axentxi* ¿Nola nai ditu bada, erre-
galatubak?
- Karmen* Bi t'erdiyan.
- Axentxi* ¡Ja, jai! ¡Bi errial t'er-
diyan! Arrantzaliak ere
artuko lituzteke. ¿Aitzen
den, Prudentxi? ¿Zer us-
te du, ostu egin ditugula?
- Karmen* Ez dakit nik ori.
- Axentxi* ¿Zer esaten du bada?
- Karmen* Badakit zer esaten detan.
- Axentxi* Ez du beorrek bixigurik
biar.
- Karmen* ¿Zer bada?
- Axentxi* Ez dakit nik. Akulak nos-
ki.
- Karmen* ¿Naizu iruban?
- Axentxi* Ez da beorrentzat arrantz
au egiñ.
- Karmen* Zuk eskatzen dezu naizu-
na eta nik eskeintze'izut
iduritzen zaitana.

Axentxi ¡Ori da! (*Desederki*).
Karmen Topatuko ditut merkiago.
Axentxi ¡Bego! Ez du orlako askorik jan beorrek.

Karmen Ori etzaizu *importikan*.
Axentxi Bijua ondotxo. (*Burlaka*).
 Emendik illabetera etortzen bada, merkiago topatuko ditu. ¿Nai du bostian?

Karmen (*Dijuala*) Ez.
Axentxi Artu beza labian.
Karmen Ezta.
Axentxi Betor, betor.
Karmen Ezta *debalde*'re, lotsagabiak.

BOSTGARREN IRUDIA

V

AXENTXI TA PRUDENTXI

Axentxi ¡Jesus, gure Señora asarratu zaigu. ¿Nai du baso bat ur esponjekin sustua

pasatzeko? ¿Aitu den
Prudentxi?

Prudentxi

Orrek eman dizkiñ ede-
rrak Axentxi.

Axentxi

Guante asko, *mantilla* ze-
rratuba, *mangitu* luzia,
abrigu aundiya, bi kana
arrastaka soñokua lurrian
eta ¡bi errial t'erdí bost
librako bixigubari eskiñi
gabonetan!

Prudentxi

¡Pobriari bizi moduba
emateko jende ona!

Axentxi

Jaso itzagun trasti abek,
k e n d u zazkigun trasti
abek eta guazeman. Fran-
ko saldu dizkiñagu. Gel-
ditzen diran sei abek ge-
nek afalduko dizkiñagu
gure senartxuekiñ.

Prudentxi

Egiya den, Axentxi, eta
bidez arturik bi pitxar sa-
gardo eta pitxar bat ardo.
Guazeman. (*Trastiak bil-
du ta dijuaz*).

SEIGARREN IRUDIA

VI

Agertzen dira iruditegian batetik bestera pasatzen mutill batzubek Naximentu batekiñ. Beriala ta beste aldetik amabi gizaseme kapusayekin jantziyak eta aye-tako batek iru edo lau kapoi makill baten puntan bizkar gañian daramazkiyela. Batek esaten du:

Mutillak, oraiñ alkatien etxera.

On Makario gazeta bat eskuban dubela.

Makario

¡Au otza dago! Aize fiñ onek ebakitzen ditu baztar guztiyak. Bañan ¡zer importa du! Gazet'onek gezurrik esaten ez badu *costumbrez fuera*, andre Joxepari erori zayo loteriko premiyo aundiyena.

¡G a u z a arrigarriya!
 ¿Nork esan biar zuben?
 Lumero seireun ta lau...
 bai. Lumeru ori esan zian
 zubela. Nik txurikatuko
 banuke ezer ez bezela...
 Arrek ez du oraindik ezer
 ere jakingo... Eta ez dit
 b e g i txarrekin beida-
 tzen... Gaur goizian ere
 esaten zian: "*kwida* bedi,
 D. Makario: bakarrik da
 mundu (b) ontan eta bere
 burubari ondo kontu artu
 biar diyo." Gero esaten
 z u b e n malkua zeriyo-
 la tantoka intxaurren tama-
 ñakuak. "¡Aii nere giza-
 rajua bizi izan balitz, eni-
 tzake orla arkituko! Ba-
 kartasun au ain da tris-
 tia...!" Eta beidatzen zian
 begi batekin... Besteik ez
 du ta dubenarekin. Nik
 ez diyot kasorik orainda-
 ño egin, eta egiaz bere
 esaerak ez aitubak bezela
 utzi ditut, zergatik:

Begi bat okerra du
bestian negarra,
modu (b) ortan ez det nai
izan nik senarra.

Bañan premiyo aundi
(y) orrek nastutzen nau
pixka bat buruba.

Zarra da ta itxusiya, ori
bai dala egiya, ez dakat
kutiziya, bañan... ¡pre-
miyo aundiya!

Oraintxen dator ori ne-
retzat, ego aizia gaztañen-
tzat bezela. Bestela ¿ni
zertan gelditzen naiz? Nu-
ben diru mordollua era-
man dit malkarrot egiñ
duben etxiak. Korrituban
jarri nituben eta aĩnbeste
korritu dute, ez dakitala
noraño jun diran nere
txanponak. Eman nituben
euneko amarrian ta ama-
rratu ez badizkitet... Aboa
mokadu bat eramateko
bildurraz, tripa engañatu-
baz promesekin gero ar-

tuko dubela nai duben guztiya; txur, txur, txur pasa diruba gordetziatik, eta orra: gutxiyenez pentsatzian aiziak eramán. Ala biar, ala biar. Bañan orain konponduko banitz Andre Joxepa onekin, elitzazkiake gaizki etorriko txanpon oyek. Uste det amarren artian dutela dezimua, bañan alare tokatuko zaizka... bai, bai, gutxiyenez... ori. Premiyo aundiyaren amargarren partia... eta amargarrenetik... amar egiñ... dira... dira... dira lau milla... zortzi milla... (*Biatzakin kontatzen*) amabi milla... ogei milla... bai, bai, ogei... milla. ¡Ez da ganga txarra! Oyetxek falta egiten dizkiate. ¿Zeñek uzten ditu eskubetatik ogei milla duro? (*Keraldia*). Aurrera bildurrik gabe. Balore geyago biar

da orlako emakume bat
pretenditzeko, a saltuan
erri batian sartzeko ba-
ñon. Alare ogei milla du-
ro... Progatuko det txuri-
katzen ote detan. Jo za-
gun atia. (*Jotzen du*).

ZAZPIGARREN IRUDIA

VII

ON MAKARIO TA ANDRE JOXEPA

(*Barrendik*).

Andre Joxepa Ez dago agilandorik.
Etxera emendik.

Makario (*Biyak zalameri aundiya-
rekin itzegiten dute*) An-
dre Joxepa, ez nau eza-
gutzen.

Andre Joxepa ¡Oí! ¿Beorri al zan D.
Makario? *Sin pentsarian*
esan diyot... *A lo mejor*
nola mutillak etortzen di-

- ran... ¿Zer dabill ordu abetan?
- Makario* Bada... bada ¿badaki? Gaur gabon degu eta gogoratu zait gabonak ematia.
- Andre Joxepa* Asko estimatzen det. ¡Ai beorri gizon fiña da beti!
- Makario* Gaur ogei milla... bider *akordatu* naiz beorren-tzaz.
- Andre Joxepa* Eskarrik asko.
- Makario* Aixkiriak bata bestiari eman biar dizkate 'ogei milla... prueba.
- Andre Joxepa* Egiya da. Sartu bedi barrera.
- Makario* Ez, ez. Orain *por ahora* ez beñepin.
- Andre Joxepa* Otz dago.
- Makario* Bai; ta eskerrak eudiya gelditu dubela. Ez dakit nik Jaungoikuak nola *eskojitu* zuben egun au, denborik gogorrenetan mundura etortzeko.
- Andre Joxepa* Ori, D. Makario, da guri erakustia munduko sufri-

mentubak nola eraman
biar diran.

Makario

Nai nuben eskeñi beorri
afariya nere konpaniyan...

Andre Joxepa

Estimatzen det. Bañan
jendiak ¿zer esango luke?
Ez, ez, *de ningun modo*:
beorri gizon ezkongaya ta
ni berriz alarguna... !Ai
nere gizarajua bizi izan
bazan... !

Makario

Bada, badaki beorrek...

Andre Joxepa

¡Orduban beste gauzik
zan !

Makario

Nere borondatia...

Andre Joxepa

Gabon arratsa beste mo-
duz pasatzen n u b e n .
¡¡Aiii !!

Makario

Nik beorrentzat izandu
det...

Andre Joxepa

¡Arren konpañiko afari-
txua ura !

Makario

Obeto biarrez esaten ni-
yon...

Andre Joxepa

Bañan gure Jaungoikuak
ala *disponitu* zuben ta ez
du *erremediyorik*.

Makario

¿Erremediorik ez?

Andre Joxepa Ez mal pecado.

Makario Mundu (b) ontan gauza guztiyak erremediatzen dira.

Andre Joxepa Illa ez piztutzia beizik.

Makario Badaki nire bakartasunian zer gaizki arkitzen naizen, eta orrengatik naituke ogei milla... *disgustu abek ebitatu*.

Andre Joxepa Arrazoya du D. Makario. Zenbat bider egondu naiz ni nere burubari esaten: "Ez det nik beñepin *komprenditzen* D. Makarioren bizimoduba orla. Mirabien kontu, geyenetan txoruak eta sisalariyak izaten diala, gañera *afektoik* artzen ez dutela iñori, oyen eskubetan egon bañon ¿zer obiago ez luke ezkontzia?"

Makario Ori, ori, egiya da.

Andre Joxepa Artu emakume xintxo bat, ez... gaztegiya... bañan ez zarra're...

Makario Bai, bai. Izan ezkerro ogei

milla... modutara obetago
bizitzeko bidia...

Andre Joxepa Emakume bat, zapatak
sartzen ta korbatako lazua
jartzen lagunduko diyo-
na...

Makario Ori da.

Andre Joxepa Oyeko tapakiyak o n d o
arreglatuko dizkiyona eta
goizian goiz txokolatetxua
eramango diyona.

Makario Baita're: bañan ¡aiñ za-
lla da arkitzia orlako bat!

Andre Joxepa ¡Aiii! ¡Nork daki!

Makario Beorrek bere buruz ar-
tzen ditu bestiak, bañan
beorri bezelako gutxi da
mundu (b) ontan, ogei mi-
lla... aldiz ere esango det.

Andre Joxepa Eskarrik asko, D. Maka-
rio.

Makario Eta... eta...

Andre Joxepa ¿Zer?

Makario Eta ogei milla... ixtillu
pasatzen dira bat diñakua
gertatzen ez bada.

Andre Joxepa ¡Ai! ¡Zeñek al lezaken
orlako *fortuna!*

Makario Orra bada, nik... besterik ez bada... ogei milla...ren artian badakit zein begiz joko nuken...

Andre Joxepa Bai: beorrek *merezi* dubena, eta gañera egin lezake ezer ez dubenen baten suertia.

Makario Bai, bai. Nik oraindano ez det pentsatu ezkontzia... eta orain ere... ez dakit... zergatik... banan beorren ogei milla... arrazoiri *atendituta*...

Andre Joxepa ¿Deziditzen da?

Makario (*Ondo begidatuta*) Izutzen naiz. Itxusiya ta zarra da...

Andre Joxepa ¿Zein?

Makario Nere gorputza ta...

Andre Joxepa Ez bezala orlakorik esan. *Estadu* onian dago, eta ez balitz estul puxka orren-gatik eta belauneko aizien-gatik eta...

Makario Ogei milla... gauzengatik... banan bai, nik biar

nuke beorri bezelako bat;
orra.

Andre Joxepa ¡Aii! ¡Zer esaten dit, Makario Jauna! ¡Ez naubela *ruborizatu!*

Makario Egiya esaten det. Beorri bezelako batekin bakar bakarrik ezkonduko nitzake.

Andre Joxepa Bakarrik biarko luke izan. Elizak ez du besterik ametitzen: bañan beorri gaboneko umoriekin etorri da ta txantxetan dabill.

Makario Aitu du bada.

Andre Joxepa ¡Ai ori egiya balitz!

Makario ¿Egiya? Baita ogei milla... aldiz ere.

Andre Joxepa Gaur ogei milla oyek sartubak dakazki...

Makario ¿Boltsilluban?

Andre Joxepa ¿Zer boltsillu? Buruban.

Makario Oraindaño bada ezin *atreturik* egondu naiz beorri esateko.

Andre Joxepa Ez bezala ori esan. Bada-ki oraiñ bañon lenago nik

- zer *apreziyotan* dakatan beorren *persona*.
- Makario* Bai, bai, eta *konformatzen* bada...
- Andre Joxepa* ¿Nola ez? ¡¡Aii!!
- Makario* *Bueno* bada, Andre Joxepa. Ezkonduko gera, eta an da emen gure kontuba Plandesen.
- Andre Joxepa* ¡Zeñek esan biar zian neri!
- Makario* *Ya que* ez duben nai etorri nerekin afaitara, ekarriko diyot afal ondoako *presente* txiki bat; maza-panezko aingira edo sube polit bat.
- Andre Joxepa* Eskarrik asko, bañan ez bedi *molestatu*. Ori bai izango litzakela Paraisoko subia bezela...
- Makario* ¿Bai, e? Ariyo, Andre Joxepa.
- Andre Joxepa* Gero arte D. Makario. ¡Ai!
- Makario* (*Etxian sartzen dala*) Zarra, itxusiya ta berritsubada, bañan !ogeï milla du-

ro! Gazeta erakutsiko di-
yot bigarren *entrebistan*
ta ¡¡zapla!!

ZORTZIGARREN IRUDIA

VIII

ANDRE JOXEPA

¡Nork esan biar zian gaur
arratsian gertatuko zala
au! Zarra ta baldarra da-
go, bañan aberatsa. Diru-
ba poliki izan biar du eta
gure azkeneko egunak
mundu (b) ontan pasatze-
ko ez da *arrimo* txarra.
Txanponak ditu ta, *en fin*,
zeruba irikitzen zait.
¡¡Ai!! ¡Noizbait izan
biar zan nere txanda!

(*Bere etxian sartzen da*).

BEDERATZIGARREN IRUDIA

IX

Azaltzen da Martzelino mutill koxkorrara, txistuka egun ontan etorri dan bata-lloyen martxa, eta txanpon batekin juaz daráman pitxarreko sagardo botillan. Al-de batetik bestera iruditegian pasatzekuan, botilla erori ta austen zayo, ixuririkan sa-gardua. Negarrez arrantzaka marruaz as-ten da eta etortzen da serenua.

MARTZELINO TA SERENUA

- Serenua* ¿Zer dek, mutill? ¿Zer egin zaik?
- Martzelino* ¡Ai! ai, aiii! Bo... bo...
(*Estuasunekin eziñ itzik egiñik*) Botilla ixuri ta sa-gardua autsi.
- Serenua* ¿Zer esan dek?
- Martzelino* ¡Ai, aii! Amak jo egingo nau.
- Serenua* Ixilik ago, gizarajua. Ez dik jipoyik emango.
- Martzelino* Bai, bai. ¡Aiii!

- Serenua* . . . Tira, ixo, ixo. Ator nerekin eta emango diat beste botilla bat etxera eramateko.
- Martzelino* . . . ¡Aiii! ¡ai! (*eziñ gelditurik negarra*).
- Serenua* . . . Bañan ixillik ago. Ez dekala bildurrik izan.
- Martzelino* . . . ¡Aii! ¿Eta sagardua?
- Serenua* . . . Beteko diat botilla nik. Amak ez dik ezere jakingo.
- Martzelino* . . . ¡Ai, aiii!
- Serenua* . . . Ez diat emango ixilltzen ez b'aiz. ¿Nola dek izena?
- Martzelino* . . . Martzelino.
- Serenua* . . . ¿*Fué por vino?*
- Martzelino* . . . Ezzz...
- Serenua* . . . Urte berri urte zar, Martzelino galtza zar?
- Martzelino* . . . Baaaii...
- Serenua* . . . Nun bizi aiz?
- Martzelino* . . . Arrandei kalian...
- Serenua* . . . Nere etxia're bertan dek eta zuzen jungo aiz.
- Martzelino* . . . ¡Ai, aiii!
- Serenua* . . . Negar egiten badek, amak ezagutu egingo dik. *Seka*

zazkik malku oyek eta
kendu zazkik zintzillik da-
kazkikan kandel oyek.

*(Martzelino zintzatzew da
blusaren barrengo aldie-
kin. Bitartian serenuak
biltzen ditu botilla puskak
eta esaten diyo:)*

Serenua

Tira guazen.

Martzelino

¡Ai, aiii!

AMARGARREN IRUDIA

X

*Agertzen dira zortzi gazte, lau bioli-
ñekin, bi flautekin, bat triangulubekin eta
beste bat bonbardinuekin pasakallia jo-
tzen. Iruditegiyen erdiyan gelditu eta ixil-
tzen dira. Batek esaten du "Vals". Jotzen
dute. Gero "Habanera", ta au bukatzian
pasa-kallia juaz dijuaz.*

XI

MADALEN, ANTHONI TA KAXIMIRO

Kaximiro Ariyo, nere maite ederrak.

Madalen Ez bagera're parian pasatzen gera.

Kaximiro Ni berriz ederren parian.

Anthoni Astuak ere alaxen pasatzen dira.

Kaximiro ¿Nora zuazte?

Anthoni ¡Ja, jai! ¡Ez dezu gutxi jakiñ nai!

Madalen *Bien que.*

Kaximiro ¿Nai al dezute laguntzia?

Anthoni ¿Guuk? Beida, ez degu zure biarrik.

Kaximiro Eskarrik asko.

Madalen Il zan.

Kaximiro ¿Nungua zera?

Madalen Euskalduna.

Kaximiro Emendik urrutikua?

Madalen Erdiya ta beste ainbeste.

Anthoni ¿Bañan noraño segitu biar gaituzu?

Kaximiro Munduben akaberaño,
naiz izan jela lekura ar-
tza tartea.

Madalen ¿Angua al zera?
Kaximiro Eskarrik asko.
Anthoni Il zala (*Dijuaz*).

AMABIGARREN IRUDIA

XII

Serenua ta Mariñel moxkor bat balantzaka. Mariñelak itz egiten du geldi ta lulu.

Serenua Bañan ¿nora zuaz, gizona?
Mariñela Etxea.
Serenua ¿Etxera emendik?
Mariñela ¿Arrayia! ¿Nora jungo naiz bada?
Serenua Oker zuaz.
Mariñela Biziro zuzen ez. ¿Ez al da ba au Ixturingo bidia?
Serenua Ez, gizona. Itxasora zuaz ortikan.

Mariñela

¿Zer bide arraye dira ba abek beti mudatzen ari diala? Probintziyan ez da gero ni bezelako gizonik maniobretan. (*Pizkorrago izketan*).

Serenua

Ez, gizona, ez.

Mariñela

Eta nik esan diyot alperrik dabilela.

Serenua

Bai, bai. Guazen etxera.

Mariñela

Eta ni bezelako gizon batek bidia galdu? ¡Milla demoniño!

Serenua

Emendik zuzen guaz.

Mariñela

Eta arrek esan biar neri...? Aitu al dezu ni bezelako gizonik Probintzi (y) ontan izandu dala?

Serenua

Ez, gizona, ez.

Mariñela

¡Aufa! (*salto bat egiñik*).

Serenua

Tira, tira, bezindadia alborotatzen ari zera.

Mariñela

Igual da. Etzait importik bezindadien gatik.

Serenua

Andria zai dakazu onez-keru.

- Mariñela* ¿Andria? bai, bai. Guazen beste txuurrupat artuta.
- Serenua* Utzi zazu biyarko.
- Mariñela* Azkenekua.
- Serenua* Aski dezu, biyar erango dezu nai dezuna.
- Mariñela* Ni bezelako gizon bati arrek esan biar... ¡zer! Pareta au're ne kontra? (*Joka*) Itxasuan gutxik eramango nau maniobretan!
- Serenua* Bai, bai.
- Mariñela* ¿Bayetz?
- Serenua* Ez, ez. Guazen etxera.
- Mariñela* Ez naiz jungo. Nik arrazoya izan da... ¿Ez al det nik arrazoya?
- Serenua* Bai, bai, gizona. Arrazoya dezu.
- Mariñela* *Bueno* ba. A Dio, sereno. (*Dijua presaka*).
- Serenua* A Dios nultbado. (*Arriturik*). Eta gabero onla ¿pazientziya biar ezta? Bañan itz batzubek egiñ.

da juten dira pakian etxe-
ra. (*Segika*).

AMAIRUGARREN IRUDIA

XIII

ON MAKARIO

(*Gazeta ta kaja borobil bat eskubetan ditubela*).

Makario

Lumero seireun ta lau.
¡Ogei milla duro! *El caso es que* pisuban jarririk alde batetik Andre Joxeparen urtiak eta itxusitasuna, ta bestetik ogei milla duruak txanponetan, balantza diruben alde jeisten da. ¿Zertako bada geyago *dudatu*? Eman zangun azkeneko golpia mazapanezko subia onekiñ. Bera Ebaren alaba da ta

elduko diyo sagarrari.
(*Atia jotzen du*) ¡Andre
Joxepaaa! (*ojuka*).

AMALAU GARREN IRUDIA

XIV

ON MAKARIO TA ANDRE JOXEPA

Andre Joxepa ¿Emen al zan D. Makario?

Makario Bai, bai, Andre Joxepa. Egin det nere afari mokaduba *de modo que...*

Andre Joxepa Nik ere artu det nere kolaziyo pithiña.

Makario Bai. Neria're kolaziyua izandu da. *Buen provecho.*

Andre Joxepa *Igualmente.* ¡Aiii! Nere senarrekin beste moduz oituba neguan! Ez dakit beñere kontatu izan diotan...

Makario Bai, bai: kontatu izandu nau ogei milla aldiz ere. (*Bitarti ontan guztiyan, larri larri dago D. Makario*).

Andre Joxepa Orain dala ogei ta amar urte ni ezkondu tako bigarren urtian Bilbaon geundela...

Makario Bai, bai, Andre Joxepa, badakit.

Andre Joxepa Bañan ez: uste det Bitoriyan giñala... Ori da Bitoriyan; zergatik Bilbaon izandu giñan geruago izeba bat ikusten, eta *por cierto que* an giñala ezkondu zan bigarren aldiz tropako mediku batekin juan dan gerratian il zana... bañan ez, ez, etzan medikuba, zergatik medikuba zan nere lengusu Ritaren senarra geroztik alarguna gelditu zana. Ura eskola maisu zan... bai, bai, juxtu, eskola maisu. Ayek ikusi zuten

sémpér. Oraiñ *akordatzén* naiz arren eskolara juten zirala nere lagun baten *semiak*; gajua kolerekin jun zan...

Makario ¿Xorraren batalloira?

Andre Joxepa Il zan ta...

Makario Bai, bai...

Andre Joxepa Ez bada. Etzan koléra denboran ill. Kolerekin il zana bere aizpa Kiteri gero ezkondu zana injenia-dore batekin...

Makario ¿Il da gero?

Andre Joxepa ¡Ai, ez! Orduban etzan ura kolerekin il zana. Nik *konfunditu* egiten nituben...

Makario ¡Au itz ontziya! Emen dakat bada *de paso* beorrentzat... (*Kaja emanik*).

Andre Joxepa ¡Ai zertako *inkomodatu* da! ¡Zer aingira polita!

Makario Bai, subia. Gure biziya Paraisua izateko ez da ezere falta. Beorri Eba, ni Adan eta ona subia.

Andre Joxepa ¡Zer gauzak esaten dituben!

Makario *Unicamente* ezkontzeko paperak al dan lenena...

Andre Joxepa Bai, bai, D. Makario, ¡Aii!

Makario Eta orain konturatzen naitzela. ¡Beorrek izan biar du loteriko dezimu bat!

Andre Joxepa Bai, bost peseta aundi *gastatu* ditut. Amarren artian degu.

Makario ¿Badaki bada? Ogei milla...

Andre Joxepa Ez degu ogei millako numerua. Lareun da sei.

Makario ¿Zer? ¿Zer? Seireun da lau izango da.

Andre Joxepa Ez, badakit seguru lareun da sei dala.

Makario ¡Ai! *Ekibokatu* egingozan.

Andre Joxepa Ez: ementxen dakat *portamonedan* gordia.

Makario ¿Aber aber? (*Estuasunekin*).

Andre Joxepa Añá.

Makario ¡¡Lareun ta sei!! ¡¡Ai,
ai, ai! aiii ¡¡

Andre Joxepa ¿Zer du, D. Makario?
Izutzen nau.

Makario Seireun... ¡ai! Lareun...
¡ai! ai, ai. (*Txorabiyue-*
kin).

Andre Joxepa Miñ egin zayo. Sereno,
sereno, atoz aguro. ¿Nai
al du baso bat ur?

Makario ¡Lareun... seireun...!

AMABOSTGARREN IRUDIA

XV

ON MAKARIO, ANDRE JOXEPA TA SERENUA

Serenua ¿Zer da, zer da?

Makario Ezer ez.

Andre Joxepa ¡Ai! ¿Pasa al zayo?

Makario Bai, bai. Utzi... utzi.

Andre Joxepa ¿Goguen kontra jarri al
zayo zerbait?

Makario Bai, ogei milla... modutara gertatzen dira gauzak ta... esango det egiya. Nik uste nuben, Andre Joxepa, beorrek zubela premiyo aundiya ta...

Andre Joxepa ¿Nik?

Makario Bai. Bañan seireun ta laura erori da... ona gazeta... beida... Beorrek du...

Andre Joxepa Lareun da sei.

Makario Ori da guztiya.

Serenua Ta orrengatik *desmayatu*?

Makario Ogei milla duro orren errex uzten al dira bada esku tartetik?

Andre Joxepa Ai, pena da, bai, bañan... ez du *importa*.

Makario ¡Ta oraiñ ezkontzera gi-juazenian!

Serenua ¡Bai! Gaurko egunian ezkontzen dira franko nun erori ez dutenak!

Andre Joxepa Maitasuna izan ezkerro eta *al mismo tiempo* kontu egiñik ondo beorren txanponari...

- Makario* ¡Nere txanponak! Korrituban jarri nituben eta ainbeste korritu dute ez dakitala noraño jun diran.
- Andre Joxepa* ¿Nola? (*Estuasunekin*).
- Makario* Malkarrot egiñ duben etxiekin. Ez det arditikan ere.
- Andre Joxepa* ¡Ai, ai, ai! (*Txorabiyua*).
- Serenua* ¿Orain onek?
- Makario* ¡Andre Joxepa, Andre Joxepa! (*Deika*).
- Andre Joxepa* ¡Ai, ai, ai!
- Serenua* ¡Au bai dala komediya!
- Andre Joxepa* ¡Ai, suerte gaiztua daka-gu!
- Makario* Egiya, Andre Joxepa.
- Andre Joxepa* Eta gure ezkontza...
- Makario* Obe genduke utzi datorren urteako.
- Andre Joxepa* Obe izango da.
- Makario* Denbora dakagu oraindik...
- Andre Joxepa* Bai: urte batzubek gora bera...
- Makario* Maitasuna danian...
- Andre Joxepa* Guk bezela, itxogoten da.
- Serenua* ¿Zer esan biar dute jauna

abek? (*Publikuengatik*).
Orrenbeste jenderen au-
rrian ezta komeni orlako
gauzik esatia, eta obetago
egingo luteke etxian sar-
tzia.

Makario

Etxian itz egingo gendu-
ke, bañan ez dakit nik ze-
ñek jarri gaituben kalien
erdiyan otz onekiñ...

Serenua

Obe biarrez esaten diyo-
tet...

Andre Joxepa

Ondo esana da. ¡Ai! Ga-
bon, D. Makario.

Makario

Gabon, Andre Joxepa.

(*Bakuitza bere etxian sar-
tzen da*).

AZKENEKO IRUDIA

XVI

SERENUA TA JENDIA (PUBLIKUA).

Serenua

¡Orra! Diruz eziñ ase dan
jendia zertan gelditzen

dan. Gu baño okerrago bi-
zi da. ¡Diru-gose zurke-
riyak! Iguaiekua da gure
umiltasuna. (*Publikuari*).
Barkatu, bañan berandu
da, ni bakarrik gelditu
naiz ta jun biet beste kale
ixkiñara orduba kantatze-
ra. Beoentzat ere garaya
izango da eta obe luteke
egñ etxe bidia artzeko
moduba. Gabon.

Publikua

¡¡GABON!!

*(Lengo orkestilla pasatzen
da batetik bestera pasaka-
llia juaz ta jeisten da bur-
tina).*

B U K A E R A (I)

- (1) Iskribatu litezke
jostaldi geyago,
bañan egiñ ditut nik
makiña bat sayo;
¡lanaren gañez jarri
dirua? ¡ze arrano!
ez det Salamankara
jun biar ortako.

¡¡AU OSTATUBA!!

Jostiduria euskerara moldatuba

Lenengo argitaratza: Donostian, Peña eta Pozo-ren
moldizkiran, Garibay kalian 18 numeroan,
1884'garren urtian.

On LUIS IZA eta AGUIRRE

*euskera zale jakintsunari
eskeña oroitzan.*

Egilleak

EGITEZALEAK:

Ostalariya

Txomin, *morroya*

Andre Kaxilda

On Inazio, *indianua*

On Bizente, *indianua*

Luis, *galaya*

Erramun, *zerbitzaria*

EGITE BAKARRA

IRUDITEGIAK AURKEZTATZEN DU JAN-LEKUBA OSTATU MOLDAKAITZ BATEAN

LENBIZIKO IRUDIA

I

OSTALARIYA ETA TXOMIN (*kantari*)

Ostalariya Aizak, Txomin, ¿beti kantatzen bizitzia pentsatzen al dek? Ixillik ago, asto-lukainka, eta esan nazak: ¿garbitu al dituk sartagiyak?

Txomin Bai, jauna. (*Garbiketana.*)

Ostalariya ¿Aldatu al dituk maindiriak?

Txomin Ez, jauna. Oraindik garbiyak daude. Ez dira ibilli illabetian baizik.

Ostalariya Ara. Koxkabill soñuba sentitzen dek. Kotxeen bat bazia-

tok. Abill aguro ta jar zak mai-
-zapiya. (*Txomin dijua kanta-
ri.*) Enakala gortu ire kanta
zar oyekin.

BIGARREN IRUDIA

II

OSTATUZALLIA, INDIYANUAK ETA ANDRE KAXILDA *guardasol* *irikiyarekin*

- Inazio* ;Au da denbora !
Kaxilda ;Au eudi jasa !
Bizente ;Abek bost ordu pasa ditugu
 kayol ortan sartuta iru legua
 ibiltzeko !
Inazio Biriak loyez betiak daude le-
 poraño.
Kaxilda ;Ai ! Gure gaztañak eta artuak
 ustelduko dira !

- Bizente* Bañan sagardua galanki eran-
go degu, tokan jokatzen degun
bitartian.
- Kaxilda* ¡Auxen da ostatu itxusiya!
Inazio Ta zikiña.
- Bizente* Ijituena diruri. Ezagun da ar-
kitzen gerala Probintziko az-
keneko muturrian.
- Kaxilda* ¡Nun da ango garbitasuna!
Eskatu besteik ez dute.
- Ostalariya* Ongi etorri. ¿Zer nai dute?
Eskatu besteik ez dute.
- Kaxilda* Eman ditzagutela bi gela one-
nak eta mokadu bat aguro,
zergatik ¡ai! flakiyarekin iya
erori naiz.
- Inazio* Bai, bai: aguro plater pare
bat, zergatik gosiekin ez degu
ikusten.
- Bizente* Ori da.
- Ostalariya* Emen ez da ezer ere falta. Es-
ka bezate. ¿Txomin, Txomin?
(*ojuka.*)

IRUGARREN IRUDIA

III

LENGUAK ETA TXOMIN

sartzen dala kantari

Txomin Jauna.

Ostalariya Mutill, eztarriko zintzarriya moztuko diat.

Ona nun dituzten kuartuak.

Inazio ¿Emen beti jendia izango da?

Ostalariya Bai, jauna. Nola Donostiko bidian dagon ez da beñere falta.

Kaxilda ¡Ai noiz arkituko naiz ni andre Joxepanian txokolatetxua artzen! Zergatik jakin biar du ni ez banaiz ezkondu ez da faltatu zaizkitalako...

Ostalariya ¿Goguak?

Kaxilda Ez; gizon gayak, bañan...

Inazio Zaude ixillik, Kaxilda...

Ostalariya Barkatu bezate, bañan beok noski urrutitik datoz?

Bizente Bai, sobra. Zenbat bide dago emendikan Donostira?

Ostalariaia Emendik Donostira... emendik Donostira... dozena bat... amalau legua inguru.

Kaxilda ¡Ai amalau legua! Zuk dituzu kulpak. Ez gera beñere alleatuko, burnizko bidian ez jartzeko seta orrekin.

Inazio Bai; lepo ezurra austeko eta berandubago alleatzeko. Utzi, utzi berriketa oyeri eta ia zer degun jateko.

Ostalariaia Eska bezate. Ez dakigu been gustoa, bañan ez da faltako.

Kaxilda Guk nai degu ondo tratatzia, zergatik ez gaude nolanai oitubak eta ni ez banaiz ezkondu ez da...

Inazio Ixooo, Kaxillda. Jarri aguro eta kosta ala kosta. Artako gera indianuak; bañan al dan merkiena ¿aitzen?

Ostalariaia Bai, bai. Jango al luteke... indiyano bat... edo indi-ollo bat?

Kaxilda ¿Zergatik ez?

Ostalariaia Gaur goizian... ¿Ez da egiya, Txomin? il degu bat arrua t'erdikua.

Bizente Bai, bai, jarri.

- Inazio* ¿Kaxuelan al dago?
- Bizente* ¿Erria edo gisatuba?
- Ostalariya* Onezkero baitare urtuba, zergatik gaur eguardiyan etorri diran jaun batzubek jan dute.
- Guztiak* ¡Ba, ba, ba, ba!
- Txomin* ¡Ta zer ederra zeguan! ¡Zer gizona!
- Ostalariya* Bañan beste zerbait izango da.
- Inazio* ¡Zer bada! Esan eta ez izan orren pixuba.
- Ostalariya* ¿Jaten al dituzte ollagorrak?
- Bizente* Neretzat platerik onena orixen da.
- Kaxilda* Saltsa goxuekin. Bai, ni ondo oituba nago, eta ez banaiz ezkondu ez da...
- Bizente* ¡Kaxilda...!
- Ostalariya* Emen agertzen dira bada noizik beñ...
- Inazio* ¡A zer poztasuna!
- Ostalariya* (*Deika*) Txomin.
- Txomin* Jauna.
- Ostalariya* Emendik pasa dan extari batek ¿etzeamazkiyen iru edo lau?
- Kaxilda* Deitu bada, edo dijuala mutilla zaldiz ekartzera.

Txomin ;Zer! Ori gerta zala bada
onezkero urte bete.

Ostalariya Ezta lau illabete're ;astua!

Inazio ;Ederki gaude gosiak iltzen!

Kaxilda ;Ai, flakiyak iya bota nau!

Bizente Bañan ;zer jan biar degu?

Ostalariya Eskatu bezate: ez dakigu
beoen gustua, bañan ez da faltako.

Bizente (*Bezagitzen*) ;Ez da faltako,
ez da faltako! Deabruak ditu
gizon onek gorputzian.

Inazio Tira aguro beste zerbait.

Kaxilda ;Jan al litezke ollasko pare
bat gisatuta illarrarekin?

Ostalariya Bai, bai, eta orixen da erre-
xena.

Bizente Beriala lumatzea.

Inazio Piztu suba.

Ostalariya (*Burua arraskaka*) Bañan...

Guztiak ;Zer, zer?

Ostalariya Kasua da...

Bizente Kazua anbat da lurrezkua no-
la burnizkoa.

Ostalariya Kasua da...

Inazio Erozein.

Ostalariya ...gure ollaskuak ez dirala
oraindik arrautzetik atera.

- Kaxilda* ¿Ez dirare txituak?
- Bizente* ¡Arrania!
- Inazio* ¡Auxen dek komediya! Ez det nik oraindik *treatuan* ere beste orlakorik ikusi.
- Bizente* Ezta bestelakorik ere.
- Kaxilda* Sekulan ez da izan ta.
- Inazio* Ezta nai're. Txorakeri oyek ikustiatik diruba eman.
- Kaxilda* Tripako miñ batek eramango zinduke.
- Inazio* Alare, Habanako kalietan ikusi izandu det gauza arrigarri bat. Beltz bat, amukua abuan sartu, su eman eta jaten gutxinaz lau arrua.
- Txomin* Ez dira emen orla mantentzen.
- Bizente* Ori bañon geyago ikusi izandu det nik. Zaldi bat erantzuten zubena galdea guztiari.
- Ostalariya* ¿Euskaraz ala erderaz?
- Bizente* Ankarekin.
- Txomin* (*Ostalariyari*) Beorrek neri bezela.
- Ostalariya* Txomin, artuko dek... (*meatxutzen*).
- Txomin* Ez, ez.
- Inazio* Mutill biziya diruri onek.

- Ostalariya* Bai; ostiko bat artu orduko konturatzen da.
- Kaxilda* Bañan ¿zer egin biar degu?
- Bizente* Beriala emendik jutia da onena.
- Kaxilda* Jarri ezatela kotxia.
- Ostalariya* ¿Bai al dijuaz orrenbestekin?
- Inazio* ¿Zer jan biar degu bada?
- Bizente* ¿Ez al da bakallabikan?
- Ostalariya* ¿Bakallaba? Ez da beñere falta etxi ontan.
- Bizente* Konpondu bada aguro tomate pixka batekin.
- Ostalariya* Bañan kasua da...
- Inazio* Ez dubela ezer esan nai kazua edo kazuelak.
- Ostalariya* ...nere semiak eskolara eramán dubela atzetik zintzilik.
- Bizente* Ez gaituzula zoratu zure astakeriyekin.
- Kaxilda* Ez dakagu farra egiteko gogorikan.
- Inazio* Guazen, guazen emendik.
- Kaxilda* Guazen lenbailen. ¡Ai!, ez nago ni orrela oituba, eta ez banaiz ezkondu...
- Bizente* Ezin zendubelako. Ixooo.

Ostalariya Ez bitezela aserretu orrengatik. (*Morroya kantari*). Ago ixillik, ez dek baliyo serentzako're. Zer nai duten eska bezate eta ez da faltako.

Inazio Ez da faltako, ta ezer ez dago.

Ostalariya Beok jango luteke gustora arrayen bat edo beste.

Bizente Bai, bai; naiz korkoi pare bana.

Ostalariya Bañan...

Guztiak ¿Zer?

Ostalariya Itxasua aiñ urruti dago emendik...

Bizente Eta zure juiziyua ere bai.

Inazio Naiz sardin zarrak...

Ostalariya Emen zartu bañan len akabatzen dira sardiñak. Nola jende asko ibiltzen dan...

Bizente Besterik ez bada, ez da izango arrautz pare bat?

Ostalariya Eta beorri bezelako gizon batek egitia galdea ori!

Bizente ¿Zer txar du bada?

Ostalariya Ez balin bada ollorik ta ollorrik etxian ¿nola nai du izatia arrautzak? Ez det ikusi beñe-

re pronostikuban orlako galderik.

Kaxilda Nik usten det zuk ez dezula urikan ere.

Ostalariya Ortan gaizki pentsatzen dute. Badakagu putzutxoa ¡ur batekin! Pixka bat loitsuba da, ta zikiña ta gaziya... bañan gure manduak eraten dute eta guk ere bai.

Bizente Manduak bañan manduago zeratelako. Guk bada ez.

Ostalariya ¿Zer nai dute bada azkenian?

Inazio ¿Azkenian? Aurrenian ere artuko genduke zerbait.

Ostalariya Eska bezate bada. Ez da faltako.

Inazio Guztiya ezer ez dan lekuban.

Ostalariya ¿Nai al lituzteke baratxuri sopa batzubek?

Bizente ¿Zer esaten dezu?

Kaxilda Nik barrengo moteltasuna kentziagatik baita porrubenak ere. ¡Zeñek esan biar zian neri ontan arkitu bear nintzala! ¡Ez nago orrela oituba, ez! eta ez banaiz ezkondu...

Bizente Ezta ezkonduko're.

- Kaxilda* ¿Zer dakizu zuk?
- Inazio* Nik gosia iltzeko erozein gauza.
- Bizente* Jarri bada aguro.
- Ostalariya* Beriala egingo diyotet plater eder bat. Txomin, ua errotara eta ekar zak ogiya.
- Txomin* Ba, jauna. (*Kantari*).
- Inazio* Ez degula musikikan bear emen, jakiya biegu.
- Bizente* ¿Ta ez al da ogirik etxean?
- Ostalariya* Ekarriko du errotatik istantian.
- Kaxilda* ¿Zenbat bide dago emendik errotara?
- Ostalariya* Gutxi. Iru legua eskas.
- Kaxilda* Etorri bañan len gogortuko da bidian.
- Inazio* Esayozu ez nekatzeko.
- Bizente* ¡Au gizon animaliya! Kotxia jarri ta guazen.
- Ostalariya* Pazientzirik nai ez badute artu eta juteko burutaratubak badaude, Txomin, atera zak tintontziya, papela ta pluma, eta jarri akiyok jauna aberi kontuba.
- Guztiak* ¿Zer kontu?

Bizente ¿Erotu al zea, gizona? ¿Zer eskatzen dezu?

Ostalariya Ezta luzia. Lau errial bi oi, eta sei errial kuartuak, amar.

Kaxilda ¿Zer kuarto pagatu biar degu ez bagera sartu ere?

Ostalariya ¿Ta nik zer kulpa det? Beok eskatu dituzte, nik eman diyo-tet eta or daude beoen zai on-do garbiyak eta txukunak...

Bizente Ori pagatu bañan len...

Ostalariya Ikatza ta egurra...

Bizente Aski da, ¡ijitua!

Inazio ¡Lapurra!

Kaxilda ¡Kontzientzi bide bagekua!

Ostalariya Ikatza ta egurra sei... ama-sei...

Bizente Makillazo artu biar zenditu-ke...

Ostalariya Atariko arriya gastatzen dana kurpillekin kotxia pasatzian...

Guztiyak ¡¡Ixoo, ixooo!!

Ostalariya Bost... orra ogei ta bat.

Inazio Guazen emendikan.

Besteak Guazen, guazen.

Ostalariya Sartzen duten bulla ta ojuben-gatik... amabi... ogei ta amai-ru.

- Bizente* Itzalpera eramango zaitut.
- Ostalariya* Oyez gañera eman bezate zerbait neskatxentzat orratzetako eta mutillari nai dutena trago batentzat.
- Kaxilda* Tragatuko zinduket nik.
- Ostalariya* Traga beza nai badu senarra ezkontzen danian.
- Kaxilda* ¡Lotsa gabia!
- Txomin* (*Leyotik begira.*) Extari bat dator erbi batekin.
- Ostalariya* ¿Erbi batekin? Banua.

LAUGARREN IRUDIA

IV

OSTALARIYA EZ BESTE GUZIYAK

- Bizente* Ez degu orlako txantxik berri-
rrez eramango. Guazen.
- Txomin* Itxogon bezate pixka bat; na-
gusiyak erbiya erosiño du.
- Inazio* ¿Orrek? Katuen bat bai, eka-
rriko du.

- Kaxilda* Neri beñepin, jateko gogo guz-
tiyak kendu nazki.
- Bizente* Guazen bada beñ edo beñ.
- Guztiak* Guazen, guazen. (*Abek atera-
tzekuan sartzen da ostalari-
ya erbiyarekin.*)

BOSTGARREN IRUDIA

V

LENGUAK ETA OSTALARIYA

- Ostalariya* ¡Ona, ona, ona! Prexkua eta odola dariyola. Jarriko det beriala.
- Kaxilda* ¿Ez al dakizu ugazkian egon bear dubela gutxiyenez bi egunian?
- Ostalariya* Aguro zamurtuko det nik. ¿Jarriko al det?
- Bizente* ¿Zer egin bada ikusirik go-
siak gaudela? Bañan kontu
(b) ori beste gisa moldatu bie-
gu.

Ostalariya Bai, bai. Ez bezatela kezki-
izan. Ikusiko dute zer saltsa
ederrian jarriko zayoten.

Inazio ¿Kontua?

Ostalariya Ez, erbiya.

Bizente Kontubekin ez degu bada sal-
tsik biar.

Ostalariya Nere kontu.

Bizente Kontu bada.

Ostalariya Txomin, eraman zak sukalde-
ra eta beriala maya jartzen
asi ari.

Txomin Ba, jauna. (*Dijua kantari.*)

Ostalariya Mutil, ixillik ago; ire kanta
aditzen badik itzul egingo dik
erbiyak.

SEIGARREN IRUDIA

VI

TXOMIN EZ BESTE GUZTIYAK

Ostalariya Ikusten dute nere ostatuban
sekulan ezer ere palta eztala.

Kaxilda Pikardiya ez beñepin.

Bizente Guazen gure geletara pixka
bat moldatzera bitartian.

In. ta Ka. Bai, bai, guazen.

Ostalariya Deituko diotet sarri.

*(Dama Kaxilda ta indianuak
sartzen dira.)*

ZAZPIGARREN IRUDIA

VII

OSTATUZALIA BAKARRIK

Ardua atera zagon. Auxen
bazeguan eta ez dute eskatu.

¡Nork asmatu oyen goguak!
Ezerekin ez dira naikidatzen.

Ezagun da Donosti (y) ortan
jende mañatia bizi dala.

(Barrenen.) Iso, iso, man-
doa,... isoo.

Ostalariya Jende berriya. Gaur egun ona
det. Bazan bi illabete animik
etxi ontan sartu etzala.

VIII

OSTALARIYA ETA LUIS GALAYA

- Luis* Artsalde on. ¿Nun da nagusiya?
- Ostalariya* ¿Nagusiya? Bat emen. Ni naiz.
- Luis* ¿Zu? Eztakazu antzikan ere.
- Ostalariya* Eskerrik asko.
- Luis* Ia mokaduben bat jartzen diguzun jateko.
- Ostalariya* ¿Jateko?
- Luis* Bai. Zertako bada ¿botatzeko?
- Ostalariya* Ala uste nuben. Ez dago bildurrik. ¿Leku onea etorri dia bada! Emen guztiya dago ugari.
- Luis* Ondo da: bañan lenbizi jakin biar degu zer dagon, zergatik pixka bat gozatsua naiz ni.
- Ostalariya* Au're Donostiarra ote da? Orra bada oraintxen ai gera maniatzen erbi bat.
- Luis* Erdi erditik eman nazu gustorra. Ongi gisatuba balin bada-

go neretzat da platerik onena.
(*Leyotik ojuka.*) Erramun,
Erramun.

Erramun (*Barrendik.*) Jauna,

Luis ¿Zer ari aiz?

Erramun Manduari zaldalia ematen
Prantxiskuekin. Banator.

Ostalariya Ausarkiya izango da bañan
Donostiarra al da beorri?

Luis Bai, ni naiz Donosti eder ar-
takua, katillu zillarrezkua, pa-
rerik gabekua, munduan bes-
terik ez bezelakua.

BEDERATZIGARREN IRUDIA

IX

LENGUAK ETA ERRAMUN

Erramun ¿Zerbait nai al du?

Luis Badiagu erbiya jateko.

Erramun ¿Bai? Jarriko degu bada berriala maya, eta krixkitin kraxkitin arrosa krabeliñ...

Ostalariya Bañan kasua da...

Erramun ¿Kristalezkoa?

Ostalariya Orantxen erosi dutela gela ortan dauden jaun batzubek.

Luis Eta ¿ez al da besteen bat?

Ostalariya Ez, jauna. Bañan baldin badakar kutiziya erbiya jateko, izan liteke extarien bat pasatzia berriz beste batekin.

Luis Ez dakagu zalantza ortan egoteko denborikan. ¿Ez al da eperrik?

Ostalariya Ez, jauna.

Luis ¿Akuririk?

Ostalariya Aitu dira.

Erramun ¿Ollaskorik?

Ostalariya Ezta.

Luis ¿Urdai azpikoik?

Ostalariya Ez, jauna, gañekoik ere.

Erramun ¿Arrautzak?

Ostalariya Ez.

Luis ¿Bakallabik?

Ostalariya Ezta.

Erramun ¿Sardiñik?

Ostalariya Ezta're.

Luis ¿Ez al da diabrurik ostatu (b)au eramango dubenik?

Ostalariya Diabruak, ez, bañan etsayak bai.

Luis ¿Zeiñ?

Ostalariya Nere emaztea.

Luis Zure antza izango du.

Erramun Bañan ¿nun gaude? ¿Ez al gera oraindik gure Probintzi maitian sartu?

Luis ¿Ta zer jan biar degu?

Ostalariya Jauna, eskatu beza. Ez bada-kigu beorren gustua. ¿zer egingo degu?

Luis ¿Zer eskatuko degu gauza baikuitzari "ez jauna" esaten dan lekuban? ¡Milla diabru! ¡Tximista arraye batek ebakiko al du ostatu (b) au!

(Kandira bat artu ta botarik.)

Ostalariya Amen, ni ezpanago emen.

X

LENGUAK TA DAMA KAXILDA, ON
BIZENTE TA ON INAZIO

- Kaxilda* ¿Ai! ¿Zer da, zer da?
- Erramun* Zerri emia. ¿Nundik atera da
inpernuko Marixkiñ au?
- Luis* ¿Zer izango da? Etorri generala
zazpi legua bidian gosiak illik
eta ez degula jatenik arkitzen!
- Bizente* Guri're beste ainbeste gertatu
zaigu eta ez bazan izan erbi
bat erosi degulako, geldituko
giñan baraurik erremediyorik
gabe.
- Luis* Orreatik ez gera gu ostatu (b)
ontatik aterako ezer jan jabe,
ta ez badezu arkitzen, zeroni
jango zaitugu erreta.
- Ostalariya* Bai: nola nagon gizona izan-
go naiz plater ona.
- Erramun* Ori da.
- Luis* Aitu dezu.
- Ostalariya* Bañan, jaunak, kontu egin
bezate nola dauden denbora

txarrak, eta barkatu biar du-
te. Etortzen badira datorren
urtian, izango det biar dan
guztiya.

Bizente ¿Datorren urtian?

Luis ¡Milla deabru! (*Oñakin lurra
joaz.*)

Kaxilda ¡¡Ai, Jaungoikuak guarda!!
Erramun Neska zar au asbera-penekin
dago.

AMAIKAGARREN IRUDIA

XI

LENGUAK ETA TXOMIN *sartzen da-
la kaxuelekin ta kantari. Ostalariyak jo-
tzen du ostikoz eta bota azitzeyo kaxuela
lurrera.*

Kaxilda ¡Ai, gure erbiya!

Txomin ¡Ai nere...! (*atze aldera esku-
bak eramantik.*)

Bizente ¿Zer jan biar degu orain?

- Txomin* Etzan erbiya, baizik baratxuri sopak. Ogirik etzuten bañan saldikan ere ez. Baratxuri bat dantzán ur bero pixka baten gañian.
- Ostalariya* Dantzátuko at nik, ago pixka bat. ¿Etzaik oraindikan ezta- rri zulu ori mututu?
- Inazio* Mutill onek Giyarre naiko du izan.
- Kaxilda* Ez dala esaten Giyarre: *a'*ekin esaten da.
- Inazio* Bai, bai, badakit: Giyarra.
- Kaxilda* Ez: Gayarre.
- Txomin* Ekarríko det erbiya.
- Bizente* Ongi etorriya.
- Inazio* Kontu itzul egin.
- Txomin* ¿Nor daki oraindik? Ogiya're badakart. Oraintxen ekarri du errotalayak bero berua, bañan oztu...
- Kaxilda* ¿Ostu egin diote?
- Txomin* Oztu zayola bidian.
- Kaxilda* ¡Ai, berandu bañan seguru ¡ Gaitz erdi.
- Bizente* Zure ezkontza bezela.
- Kaxilda* Utzi nazu pakian.
- Bizente* Tira mayera.

- Kaxilda* Ixiri gaitezen.
- Inazio* Beste oyeri eskeintzen badiogute, abuan sartzeko diña ez degu izango.
- Bizente* Ez aitzera ematia da onena.
- Inazio* Ori, ori; ezerez bezela ixiri gaitian ta jan zagun. (*Ixiritzen dira.*)
- Luis* ¿Ikusten dek, Erramun, zer lotsa gabiak? Jatera ziaztik eskeñi gabe.
- Erramun* ¿Nai du petardo bat ematia?
- Luis* Mereziya izango ditek. ¿Bañan nola?
- Erramun* ¿Ez al da oroitzen lengo bidajian zer kontatu niyon erbiyarena?
- Luis* ¿Amorratubena?
- Erramun* Bai.
- Luis* ¿Ta zer?
- Erramun* Gaur oyek erbiya ikutzen badeute, esan lezake asto bat naitzela.
(*Izketan ixillik biyak gelditzen dira.*)
- Bizente* ¿Bañan noiz dator erbi (y) ori?

- Kaxilda* Ekartzen ez badute, ezta beñepin bere ankian etorriko.
- Inazio* ¡Beste matraken bat sortzen ez badigute!
- Bizente* Ostalariya, ekarri dezatela ardua bitartian.
- Ostalariya* (*Bi txarroekin.*) Ona nun duten beltza ta zuriya.
- Kaxilda* ¿Txuriya au txakoliña al da?
- Ostalariya* Ez, ura.
- Kaxilda* ¿Manduak eraten dutena?
- Ostalariya* Au ez dute beñepin oraindik eran.
- Bizente* Gorde zazu bada ayentzat.
- Inazio* ¿Ez al da sagardorik?
- Ostalariya* Sagarrrik ez bada ¿nola nai du sagardua izatia?
- Iñazio* Donostiyan sagarrrik gabe're egiten dituzte.
- Kaxilda* ¿Zer dakizu zuk? Etzazula orrela salgaiztarik altxa.
- Ostalariya* Donostiyan jende ernaya da...
- Kaxilda* ¡Au mai-zapiya! Onek ez du jaboyik ikutu egin zanetik! ¡Abek basuak! ondua illuna dakate... Kraka guztiya era-txiya! ¿Abek al dira platerak? lau ortzakuak edo tenedoriak

ordoitubak! Onek ez dirudi
ostatuba baizik txerri-tokiya.

¡Aiii nun da gure Probintziko
txukuntasuna! (*Andizkiro.*)

Erramun Asi da atsua bere asbera pe-
nekin.

(*Lengo bitarte guztietan osta-
lariya ta Txomin ibildu dira
sartu ta atera, gora ta bera,
maiz topoz egiten dutela, gau-
za bat batek ekarriyaz eta bes-
tiak ura bera eramanez.*)

Txomin (*Kantari ta beste kaxuelakin.*)
Ona erbiya.

Bizente Baukan orduba.

Luis Guretzat jatekoik ez dagon
kontuban, ua, Erramun, eta
esan akiok Prantxiskuri atera
dezala otarratik otzegosian da-
guana.

Erramun (*Leyotik ojuka.*) E, e, ekar-
zazkik bi ollo erriak eta zekor-
ki puxka bat.

Bizente ¡Zeñek jan lezaken!

Kaxilda ¡Ez dakate janari gela txarra!

Inazio Onena izango da eskeintzia gu-
ria eta bi janak bat egingo di-
tugu.

- Kaxilda* Ondo pentsatuba.
- Bizente* Galaya, gusto balin badute gu-
rekin jatia, borondate guztiya-
rekin emango diyotegu dago-
netik.
- Luis* Asko doaikertzen degu eskeña
bañan badakagu jakiya.
- Inazio* Besterik ez bada artu bezate
bitartian xanko bat edo beste.
- Erramun* Ondo esaten dute jauna abek.
- Luis* Bañan bainandeakin guria're
progratu biar dutela.
- Bizente* Bai, bai. ¿Zer bada? Ixiri,
ixiri.
- Inazio* Eta alkarrekin denak atsegi-
ñago egongo gera.
- Luis* Ixiri ari, Erramun.
- Erramun* ¿Non, emen?
- Bizente* Bai, bai.
- Erramun* Neska zarren onduan. ¡Au
itxusiya! Jateko goguak ken-
tzeko diñakua. Barka beza...
- Kaxilda* Ez da zergatik. Ixiri, ixiri ajo-
lik gabe.
- Erramun* Eskerrik asko.
- Kaxilda* ¡Aii, ez nago ni orrela oituba!
- Erramun* ¿Ez, e? Asi da asberapenekin.
- Kaxilda* Ta ez banaiz...

- Bizente* (*Itza laburtu aziyaz*) Txorua, ñor ez da mundu (b) ontan.
- Inazio* Berriketak alde batera utzi ta asi gaitian; bada orduba.
- Bizente* Neri aztu zait beñepin noiz sartu nuben azkeneko moka-duba. Tira, galaya, artu.
(*Erramun asten da dardaizoka.*)
- Kaxilda* ¡Ai! ¿Zer du gizon onek?
- Erramun* Au arrapaska jaten da, gau, gau, gau. (*Zaunkaka bezela ta beti jaten.*)
- Bizente* ¿Zer dezu, gizona?
- Erramun* (*Presaka.*) Ardua, ardua, au zintzurretik bialtzeko.
- Inazio* Tori.
- Kaxilda* ¿Zerbait egin zaizu?
- Erramun* Ez. Ni naiz Onda... arrabiya-koa, eta... eta... erbiya ederra dago.
- Kaxilda* Bañan...
- Luis* Ez bitezela izutu. Ez du besterik txikitan Jaitzkibelko mendian zakur arrabiyatubak kosk egin ziyola eta amorratuba dago.

Kaxilda ¡Jesus! (*Guztiyak altxatzen dira galaya ta Erramun ez bestiak eta alde egiten dute.*)

Inazio
Ostalariya
Txomin } ¡Ai, ai, aiii! (*Itzulika*).

Bizente ¡Arrayia pola!

Erramun (*Beti jaten*) Badirui beti zakur ura ikusten detela.

Ostalariya Karatxo, ta neri begiratzen dit.

Erramun Ostalariya, ¿nai al dezu pixka bat?

Ostalariya Ez, ez, milla esker. Galaya, altxa bedi ortik, bestela...

Luis Ez dago bildurrik. Ori amorratuba dago zakur batengatik eta ni berriz erbiyaengatik.

Kaxilda ¡Auxen da ixtilluba!

Inazio ¡Ongi gelditzen gera!

Bizente Sorgin kontuba diruri.

Kaxilda ¡Ai, ez aitatu sorgiñik!

Ostalariya Ez; bestela nere emaztia azalduko da.

Erramun Orain beste tragua ta bapo egin degu. (*Altxatzen da.*)
¿Zer zor degu, ostalariya?

Ostalariya Ezer ez, ezer ez. Ez aldame-
neatu, guztiya pagatuba dago.

Erramun Ori ez. Nik jan det eta nik pa-
gatu biar det.

Ostalariya Ez, ez; zure eskutik ez det ar-
tu nai ardipat ere. Onenian edo
txarrenian, diruba're ikutu du
miñak eta gero neri sortzeko?
Amorratu'itezela nai badute
diabruak.

Luis (*Mayetik altxata.*) Erbiya jan
da.

Erramun Ta nere arrabiya juan da.

Guztiyak ¿Zer da bada?

Luis Au da erakustia, besterik ez
bada ongitzaz eskeintzen ez du-
benari, jende fiñ artian oitzen
da bezela.

Erramun Arrabiya izandu da komediya.

Inazio ¿*Treatubetan* bezela?

Luis Bai.

Bizente ¡Onek ederrak eman dizkigu!

Erramun ¿Ikusi al dute bada amorra-
tuik nik aña jaten?

Ostalariya Egiya da. Nere emaztiak ez
du mokadurik abuan sartzen
arrabiyatuba dagonian.

Kaxilda Alare izuba jun zaigu.

- Inazio* Ni larri larri neguan.
- Ostalariya* ¿Eta orain zeñek pagatzen dit neri?
- Erramun* ¿Esan ez dezu bada pagatuba dagola?
- Ostalariya* Ori esan nizun amorratuba zeundelako, bañan orain...
- Erramun* Amorratuko naiz berriz.
- Ostalariya* Ez, ez, ez; ori ez. Ez dakazkit oraindik guztiyak nerekin.
- Luis* Orra bada, sentitzen det emen gertatu dana ta barkatu beza-te.
- Txomin* Il da gero...
- Luis* ¿Zer?
- Txomin* Salda bero.
- Luis* Au da (*ostalariyengatik*) kulpagarri guztiyena, eta zuzentzeko etzayo eman biar arditikan ere.
- Ostalariya* Orain bai nagola ni arrabiya-tuba. Kontuban artu beza naingabeko gertaera izandu dala eta itz ematen diyot beste bation orlakorik sortuko ez dala.
- Luis* Egiyaz ori agintzen badezu, tori diruba eta ar zazu biar dan diña.

Ostalariya Milla esker. Gizon prestuba da beorri.

Luis Zuk merezi ez dezun bezelakua, eta, nola alkartu gean, esango diotet inguruko erriyan nere osaba dala alkate, eta erbiyaren ordañaz arren etxian izango degula denentzat ugari nai degun guztiya.

Bizente Ez da gaizki esana.

Inazio ¡Biba gure galaya!

Guztiyak ¡Biba, bibaaa!! (*Txomin asten da kantari.*) Guazen, guazen.

Ostalariya Mutill, oraindik kantatzeko gogua dakak? Utzi nazak izketan eta gero kanta zak nai badek lertu arte.

(JENDIARI)

Gustatu bazayote
nere ostatuba,
etxia gelditzen zait
oraintxen ustuba.

Betoz aguro denak,
badakat lekuba,
¿nun arkituko dute
orlako tratuba?

Luis Ostatu (b) ontan dagon
ostatuzalia,
lapur gezurtiya da
ta lotsagabia.
Iñor badago emen
onaren zalia,
badakit ostatu bat
askozaz obia.

Inazio Aguro nai degunik
artzen ez badegu,
tximistak bezelaxen
itzuli guaz gu.
Estuasun guztiyak
aztuko ditugu,
egiten badigute
eskubekin soñu.

Bizente

Guazen, guazen, muti-
gure Probintzira, [llak,
pozturikan biyotzak
alaitutzen dira.
Soro belar gañetan
bagari begira,
sagardo onak ere
bakarrik an dira.

Kaxilda

¡Auxen dek istilluba
damatxo batentzat!
orrenbeste gizon da
nik oraindik ez bat.
Urre xarrez betia
boltsatxua dakat,
arpegi zimur gabe
nai ditanarentzat.

Amabost urte ditut
amabost parian,
amabost besterik ez
guztien gañian.

Makiña bat badago
jain nere zalian!
¿ezkonduko ez ote naiz
datorren urtian?

Erramun Orain nere txanda da
baña txantxak puera,
lau arruako erbi bat
jateko bagera,
(gutxi gora bera).
Ez baditet ematen
txalo bat ederra
berriz nua benetan
arrabiyatzera.

Txomin Kantatzeko badakat
oraindik indarra,
pixtuba dago beti
barrenen txingarra.
Gaienderikan gabe
det asmo bakarra,
sayatu nola egin
alkarrekin parra.

Ikasi nai dubenak
Euskera garbiya,
txokoratu lezake
gure komeriyā.
Badago nunbaitian
obia neurriya,
¡¡Biba Euskaldunak eta
biba Donostiya !!

(Jeisten da burtina.)

BUKAERA

ANTON KAIKU

Jostaeta jostirudikoa euskaraz
jarriya

Lenengo argitaratza: Donostiyan, Osés-en moldizki-
ran, 1882'garren urtean.

A mi hija MANUELITA

A ti, que eres el consuelo de mi vida, te dedico este pequeño ensayo Euscaro con el que tanto te has reído, como prenda del cariño de tu padre que te quiere y pide al cielo por tu virtud y felicidad.

Marcelino

BIRTUZINA

Personak:

Anton Kaiku
Kathalin
Eskribaua
Nagusiya
Alkatia
Aguazilla

Egilleak:

Ramiro Mata jauna
Nemesio Saizar jauna
Martin Bandrés jauna
Norberto Luzuriaga jauna
Nemesio Saizar jauna
Francisco López jauna

Artzayak mendiyan

Gertaera iruritzen da Aralar eta Aitzgorri bitartian

Antonek agertu biar du jantziya galtza zuriarekin, abarkak, mantarrak, alkandora lepuan azkatuba, boina gorriya eta elastiku urdiña array gorriduna zintzilikayuarekin. Oso zokarkiro mintzatu biar du.

Eskribauaren jantziya izan biar du jaun batena, bañan arras antziñakua. Illerantzia illegabea bilgoa batzubekiñ eta masalgañetako bizarra luze ta zuriya. Begiordeak eta kapela gopa.

Nagusiyak, bizar guztiya, laburra eta beltza, lastozko txapela jipi-japa eta ederki jantziya. Gogotik gizona eta kolore biziya.

Kathalin eskribauaren alaba bat bezela eta Aguazilla estarroilla jantziarekin, al baldin bada, eta bizar kokozpekuarekin.

EGINTZA BAKARRA

Biltokiak aurkeztatzen du iruditegian, burtina altxatzen danian, mendi basati eta zulepakia, arkaitzez betia. Arbola erdi erdiyan eta onen aurrean, alkiluzia ta mayya. Ezkerretara eskribauen etxia.

LENBIZIKO IRUDITEGIA

I

Artzayak mendi gañetatik jeisten dira kantari xaxi danboliñaren doñuan eta Kathalin dago bian arbolaren onduan ayeri begira.

Artzayak Goiza ederraren señalía du gaur agertzen dan denborak, txiki batekin kontentu gera mendiya ontako artzayak. Jan eta erateko ardurik gabe bai ere ezkontzeko gizon gayak,

txiki batekin kontentu gera
mendiya ontako artzayak.

Eskui ezker artzen da egillearen aldetikan.

Guazen, guazen,
guazen, iji aja,
jetxi, jetxi
aldapa presaka.

Kaiku esnia, kaiku esnia
salduta tabernara,
kaiku esnia, kaiku esnia
salduta tabernara.

*(Kanta au bukatzian artzai batek gal-
detzen dio bestiari.)*

Artz. 1.^a Aizak, Joxe Batista, bai al
dek belarrik?

Artz. 2.^a Bai. To, Gergoriyo (*boinatik
aterata.*)

*(Bitartia ontan beste ixkiñan dauden
artzayak festak egiten dizkate Kathaliñi
eta gero beste doñuan kantatzen dute au:)*

Beti umore onarekin
emen gera artzayak
gora bera irrintzika (*ojuba*)
menditik guztiak.

Dantzatu zagun bada (*dantza*)
utzirik kaikubak
neskatxa bana artuta (*ojuba*)
guazemak, mutillak.

(*Bigarren aldiyan kantatzen dijuaz eskui aldetikan mendiyik igo gabe errira bezela eta Kathalin ayen atzetik aita etxetik atera bitartian.*)

IRUDITEGI BIGARRENA

II

KATHALIN ETA ESKRIBAUUA

(Eskribauak *asarre bi bider oju egiten du barrenen ; ;Kathalin!! eta ateratzekuan au:*)

Kathalin jo kirtena!
nabill zoraturik
ukullutik ganbaara
zu ezin billaturik.

Kathalin Aita ¿zer nai du bada?

Eskrib. Naukazu baraurik.

Kathalin Beriala gosaitan
emango diot nik.

- Eskrib.* Atariyan zabilta
beti da jakiña.
- Kathalin* Zergatik aitu detan
emen danboliña.
- Eskrib.* Danboliñikan gabe
dantzatuko ziña,
artuko banuke nik
arbasta bat fiña.
- Kathalin* Ez naiz orla biziko (*negarrez*)
denbora luzian.
- Eskrib.* Utzi nazu, Kathalin,
oraintxen pakian.
- Kathalin* Pakea seguruba
dauka ni ezkontzian,
beste moduz ez dago
pakerik etxian.
- Eskrib.* Erromerietako
zera txit berdiña,
bañan zure majua
ez da zure diña.
- Kathalin* Orrek ematen diyo
bedorri, bai, miña.
- Eskrib.* Alperrik zabiltzala
daukazu jakiña.
- Zuk nai dezun majua
neri gustatze'etzat;

ez du zuk aña erralde...
zuk ainbeste dukat...

Kathalin Bañan...

Eskrib. Ixillik zaude,
ez da ona zuretzat.
Ezkondu nai badezu,
billatu beste bat.

Kathalin Maitasunikan gabe
nai du ni ezkontzia?

Eskrib. Ta zer da maitasuna
okelik gabia?

Kathalin Biotzaren jakiya
zerutik jetxia.

Eskrib. Biotzaren onduan
tripa dago ordia.

Arrek senti bear du,
gorputzak okela,
bestela gertatzen da
maitasun motela.

Kathalin Bedorren esaerak
ematen dit jela,
feriatu nai gaitu
txekorrak bezela.

Eskrib. Kathalin...

Kathalin Prestuba da
nai detan mutilla.

- Eskrib.* Guztiak ezkongaitan
txit prestubak dira.
Ezkondu eta gero
aitzekiak milla,
maiz estuasunekin
ogiyaren billa.
- Kathalin* Orrekiñ ezin bada
ez det nai besterik.
- Eskrib.* Alperrikan zabilta,
Kathalin, alperrik...
- Kathalin* Biyotz guztiya daukat
oso penaturik... (*negarrez*)
jilko naiz penarekin!
- Eskrib.* Ez dago bildurrik.
- Kathalin* ¡Aita!
- Eskrib.* Eta aitona
amandrearekin
ez dirade artaratzen
gauza ontan zurekin.
- Kathalin* ¿Nik zer egin biar det?
- Eskrib.* Aizazu, Kathalin,
gosariya ondo jartzen
alegiñak egin.

(*Kathalin aurretik asberapena aundia-
rekin eta Eskribaua etxian sartzen dira.*)

IRUDITEGI IRUGARRENA

III

ANTON ETA NAGUSIYA

(*Ateratzen da Anton ojuka eskuitatik nagusiyak kaltarraitzen dubela eta kolpatzen dubela esku makillarekin.*)

Anton ¡Ai! ai! ai! aiii...!

Nagusiya A lapurra! pagatu biar nak egin dekan ezkerra.

Anton Jauna! ¿zer egin diot nik orrela jotzeko?

Nagusiya Egiñ ez, desegiñ. Nik jarriko at oraiñ ez geyago arkumerik ostutzeko moduan.

Anton ¿Nik arkumiak ostu? Jesus!

Nagusiya Egin zak orain bobo papela.

Anton Gezurra da ba ori.

Nagusiya Gezurra? to, to, to, (*joka*) ia au ere gezurra dan?

Anton Ai! ai! aiii!!

Nagusiya ¿Ez atan ikusi neronek atzo arratsian arkumia iltzen?

Anton Ba, jauna.

Nagusiya ¡Aaaa! ¿Bai jauna, e? Tuantia.

Anton Egiya da, bañan il nuben banekiyelako erozein aldetara're il biar zutela.

Nagusiya ¿Seguru al ekikan?

Anton Ba, jauna.

Nagusiya ¿Zergatik?

Anton (*Buruba arraskatzen*) Zergatik jayotzen dian guztiak gero ill egiten dira.

Nagusiya Bai e? i're bada iltzeko jaio aiz ta to, to, to (*joka*). Lapur, ijito, txerriya.

Anton ¡Ai, ai, aiii!! nere buru guztiya iriki nau.

Nagusiya Oroituko aiz, ago pixka bat. Alkatiari kontu ematera niak beriala.

Anton Ai nagusi jauna! Jaungoikoagatik barkatu bezait. Ondo pagatubak daude makillazuarekin arkumiak eta arkumiarekin makillazuak.

Nagusiya Eun da ogei arkume falta zaizkiak eta eztiat utziko i kanpan-

torretik zintzillik jarrita ikusi
arte.

(Anton *meatxatzen du eta ir-
tetzen da.*)

IRUDITEGI LAUGARRENA

IV

ANTON (*Keraldia*)

Zer egiñ biar det nik orain?
Alkatiarengana eramaten ba-
nau, txitua bezela itoko nio-
tek! ¡Auxen da ixtilluba!
¡Eta gero Aralarren artzayak
ondo bizi dirala esango dute!
¡A!! Eskribaua or bizi dek:
orrek asko zekik. Tellatu ixki-
ñatik zintzilik jarrita emango
liokek auzia eguzkiyari. Ondo
pagatzen badiyot, aterako niok
estuasunetatik. Bañon gertaera
da len zor dizkatala txanpon
batzubek! Alde guztietan zaill-

tasunak. Onezkero eztek oroituko. ¡Au buruko miña jarri nau golpiarekin asto lukainka orrek! (*atia jota*) Abe Maria Puixima.

IRUDITEGI BOSTGARRENA

V

ANTON ETA ESKRIBAUUA (*barrenen*)

Eskribauua ¿Zein da?

Anton Ni, mintsu bat.

Eskribauua Miñez daguana ospitalera.

Anton Aguro eramango nau eskribau jaunak nere egitekua pixka bat luzatzen badu.

Eskribauua Ni ez naiz pobriaren letraduba.

Anton Badakit, jauna, pobriak zeruban bakarrik dituztela letradubak.

Eskribauua Nik ezagutzen zaitut.

Anton Ez jauna.

Eskribaua (*Aterata*) Ez? Anton, bai, bai. Zubek bi anai ziñazten eta kartzelatik neregatik libratu ziñaten.

Anton Ba jauna.

Eskribaua Eta esan ziraten zubetako bat gero kartzelan il zala.

Anton Egiya esateko enitzan ni ill.

Eskribaua Bai: ikusten det. Eta zertara zatoz?

Anton Ni bedorrek eskudatzeko nagusiyaren kontra.

Eskribaua Oso egitekoz betia nago eta ezin sartuko naiz ixtilluba oye-tan. (*Aldeiten atzaldia eman- ez.*)

Anton Orra bada nik pagatuko niyoke seguru eta doble.

Eskribaua (*Kupituba*) Gizarajua, tira, tira, ez da gaizki esana. Konta nazu egiaz guztiya.

Anton (*Buruba arraskatzen*) Orra bada jauna..., ni naiz artzaya, bañon nola basuan beti egonda gauden, batek ez daki zer egiñ eta gogoratu zitzairan merkatari sartzia.

Eskribaua Zeñekin?

Anton Arakiñarekin.

Eskribaua Eta nola?

Anton Nola bastangarekiñ arkume asko iltzen zan, bastangatik libratzen.

Eskribaua Ori txit ona da. Eta zer erremediyo ematen zeniyon arku-miari?

Anton Ill egiten nituben bastangak arrapatu bañan len.

Eskribaua Erremediyo seguruba da.

Anton Bai aisa. Lengo arratsian ere bazeguan arkume bat artza añakua eta ¿zer egin niyon? sartu niyon lepotik labana eder bat eta, nola ta zergatik jakin gabe, etorri zitzaion min bat eta artatik il zan.

Eskribaua Eta iñork etzuben ikusi?

Anton Ez jauna. Nik uste det iñork etzubela ikusi... nagusiyak besterik, eta orain esaten nau eun da ogei falta dirala eta pagatzeko, eta nola dakiten erri-yan gizona orrek egiya esaten dubela, txinistuko diote. Orra mesede eginda zer eskerrak. Nik ill eta arakiñari saltzeko

bialdu, diru pixka bat artu arakiñak eta nik, eta bastangatik libratu eta orra. Ez du baliyo ondo egitiak.

Eskribaua Eta nagusiyak zer probetxu zuben?

Anton Bastangatik libratzia.

Eskribaua Eta zer esan dizu?

Anton Esan? Egiñ, egiñ einago.

Eskribaua Zer egin dizu?

Anton Zer? Makillazoka josi eta buruba autsi.

Eskribaua Gizarajua. Eta zer nai dezu oraiñ?

Anton Nai detana da ondo atera alkatiaren aurrian deitzen nau-benian.

Eskribaua Bi bide bakarrik daude ortarako.

Anton Bota lenbizikua.

Eskribaua Lenbizikua da zu urkatzia lapurtzat.

Anton Etzait gustatzen. Ia bigarrena.

Eskribaua Gaitza da, zergatik arrazoya ez dago zure aldetikan, bañan ipiñiko det naspilla bat *Juri-*

di-trampi-legal deitzen dioguna.

Anton Jaungoikoak pagatuko diyo eta nik ere bai, ortarako da berorri plumazko gizona.

Eskribaua (*Asarre*) Aizazu, ni naiz ezur da aragizkua, ez plumazkua.

Anton ¡Ai ni ere ala banitzake! Enituben sentituko orremeste eman dizkian golpiak.

Eskribaua Beaz gogor jo zaitu?

Anton Ba jauna, bai.

Eskribaua Eta alkatiarengana deitzeko gelditu?

Anton Ba jauna, bai.

Eskribaua Kontu artu bada ondo nik esaten dizuanari.

Anton Etzait burutik juango.

Eskribaua Galdetzen dizuen gauza guztiari eta egiten dizuen argui-menduari ez esan beste gauzik ardiyak mendiyen zuri deitzen dizutena beizik.

Anton Ondo da.

Eskribaua Arkumiak bezala itza egin.

Anton Ba jauna.

Eskribaua Ez gero kontugabetu?

Anton Ez jauna, ez.

Eskribaua Bañan badakizu, aixkiria, gauza au ondo pagatu biar dala.

Anton Ba jauna, bai. Badakit nik trampak ásko kostatzen dirala.

Eskribaua Ara, alkatia emendik ikusten det kontzejua datorrela eta jungo gera nik txapela ta eskumakilla artuta. (*Sartzen da etxian gauza aben billa.*)

Anton Au da gizona au! Onek txinistaraziko loke egunez arratsa dala.

Eskribaua Tira, guazen.

Anton Guazen.

Eskribaua Ez aztu leziyua?

Anton Ez jauna.

Eskribaua Guazen emendik eta bitartian zerbait geyago erakutsiko dizut.

Anton Ba jauna, bai.
(*Ateratzen dira eskuitatik eta Alkatia, Nagusiya eta Aguazilla agertzen dira ezkerretatik.*)

VI

- Alkatia* Zenbat arkume falta dira?
- Nagusiya* Egun da ogei.
- Alkatia* Eta zer egin du orremeste arkumerekin?
- Nagusiya* Ez dakit nik jan o zer.
- Alkatia* Jan baditu bada, ezin tripatik aterako zaizka.
- Nagusiya* Nik legez nere zuzena eskatzen det.
- Alkatia* Egingo da justiziya biar dan bezela.
- Aguazilla* Jauna, maya, alkiluzia, tintontziya, papela ta pluma prest daudez.
- Alkatia* Ixiri gaitian bada.
(*Alkatia ixiritzen da, Nagusiya gelditzen da zutik ezkerretara eta Aguazilla eskuitera pixka bat atzealdian. Eskribaua ta Anton ateratzen dira lengo bidetik eta jartzen dira Nagusiyauren aurrez bañan Anton urrutiyena iya burtina altxatzen danen ixkiñan.*)

VII

LENGUAK ETA ANTON TA
ESKRIBAUUA

Eskribaua (*Antoni azaltzeakuan*) Bada-
kizu zer esan e?

Anton Ba jauna.

Nagusiya Eskribauarekin datorrena da
pillua ori.

Aguazilla Egun da ogei arkume janda
ezta asko gizendu.

Eskribaua Alkate jauna: ni nator au es-
kudatzea.

Alkatia Asi gaitian. (*Idi zintzarri aun-
di bat jotzen du*) Nagusiyak
salatu dezala.

Nagusiya Arkumiaren lapurreta proga-
tuko det. Neroni naiz testigu.

Eskribaua Iñor ezin liteke izan testigu be-
re gauzan.

Nagusiya Bai besterik ez danian.

Eskribaua Ez.

Nagusiya Bai.

Eskribaua Ez.

Nagusiya Bai.

Eskribaua Ez.

Nagusiya Bai.

Alkatia Ixoooo (*zintzarriya indarrarekin dabilela*). Kulpagarri deritzayonak zerbait argi eman-go ditu.

Nagusiya Ori da. Begiratu besterik ez du: orren arpegiyak berak esaten du lapurra ta gaixtua dala.

Eskribaua Poliki gero emen itza oyekin!

Nagusiya Biyok ere alkarren antza badezute.

Eskribaua Zu izango zera lapurra.

Nagusiya Zu aundigua.

Eskribaua Zu.

Nagusiya Zu.

Eskribaua Zu.

Nagusiya Zu.

Alkatia ¡Eee!! Ixooooo!! (*berriz ere zintzarriyarekin*) Aguazilla; lenbizi alborotatzen aste'ana, itzalera eramán. Tira, atoz onara (*Antoni, bañon Anton ez da mogitzen.*) Arrima; ez al dezu aitzen? Aixkiria, nola dezu izena?

Anton Bee. (*Beadia egin biar du.*)

- Nagusiya* Gezurra. Anton du izena.
- Alkatia* Anton ala Be ez du importik. Konta nazu. Egiya al da jaun-
na onen arkumiak gordetzen
dituzula?
- Anton* Beeee (*geruago ta beadi gogo-
rrago ta luziago.*)
- Alkatia* Zer?
- Anton* Beeeeee.
- Nagusiya* Orain lelo ta gor papela egin
nai al dek?
- Alkatia* Jauna oni falta al zaizka eun
da ogei arkume?
- Anton* Beeeeeee.
- Alkatia* Nundik ekarri dezu izkera be-
rriya ori? Egiya al da nagusi-
yak zu ikusi zaitubela arku-
miak iltzen?
- Anton* Beeeeeeeeeee.
- Alkatia* Zer esan nai du onek? Bai al
dakizu zeñen aurrian zauden
orrela agertzeko?
- Anton* Beeeeeeeeeeeeeee.
- Eskribaua* Onek esan nai dubena da, jus-
tiziya eskatzera datorrela eta
nik progatuko det nagusiyak
buruban eman dizkan kolpiak
zentzua itzuli azi diyotela, eta

legez dago illa, zergatik anima-ko izate moduak faltatu zaizkan, eta ori da okerrago gorputz bat iltzia baño. Biziya kendu diyo, zergatik kendu dizkan irabazteko moduak, eta il biar baldin bada gizon bat arkume batzubengatik, nik eskatzen det gizona orrela iltzen dubenarentzat lepoko pena.

Alkatia Nagusi jauna, txit gaizki ikusten det zure auzia.

Nagusiya Gaizki?

Alkatia Ez al da ezer alkatia? Justiziya zure eskutik egin, eta jotzia basta etzala buruban jo?

Nagusiya Batek arrabiyarekin ez da kon-
turutzen nun jotzen duben!

Alkatia Kondenatuba ateratzen zera.
¡Gizona estaduba ortan utzi
illa baño okerrago!

Eskribaua ¡Ederki alkate jauna! Badegu
rerum confitentem.

Nagusiya Zer konfite ta konfietro! O
etsayak eraman biar dute o
pagatu biar dizkit ardiyak.

Alkatia Ez emen itzikan atera. Zuk pa-
gatuko dituzu gastubak eta

gañera sendatzeko biar dituben erremedio guztiak, eta ezker-
rrak arakiñaren agintari zu
zerala eta zuregatik ematen
nautela aragi ezurrik gabia,
bestela onezkero agindu nuben
txitua bezela itotzeko. Eta An-
ton gizarajua lenbailen senda-
tzeko bidian jarri.

Nagusiya *Apelatu* egingo det.

Alkatia *Pelatuko* zaitu eskribauak seta
orrekin segitu nai badezu.

Nagusiya Arrapatuko zaitut, tunantia!
(Anton *meatxatzen eta atera-
tzen da.*)

IRUDITEGI ZORTZIGARRENA

VIII

LENGUAK, NAGUSIYA EZ BESTE GUZTIYAK

Eskribaua Tira, Anton, agurmenak egin
alkate jaunari eta eskerrak
eman.

- Anton* Bee... Bee... Bee...
- Alkatia* Eskribaua, kuidatu gizarajua ortzaz ia erremediorik ote du-ben.
- Eskribaua* Nere kontu. Nagusiyaren bol-tsillutik.

IRUDITEGI BEDERATZIGARRENA

IX

ANTON ETA ESKRIBAUUA. (*Keraldia.*)

Eskribaua Aixkidia, etzaitut txarretik li-bratu! Nik uzten bazaitut, le-potik soka jarrita artzen du gi-zona pisura. Orain nai det iku-si nola portatzen zeran zu.

Anton Bee...

Eskribaua Bai, ederki egin dezu pape-la. (*Alde guztietara begidaka*)
Iñork ez gaitu ikusten. Ia bo-ta diruba.

Anton Beee.

Eskribaua Ba, ba, utzi zazu tontakeiyya
ori eta agindu nazun bezela
ekatzu doblia.

Anton Bee, beee.

Eskribaua Zer? Nitzaz burlatzen zera?

Anton Bee, bee, beeee.

Eskribaua Ori ez, arranua, ilko at, lapu-
rra.

*(Segika ta joka esku-makilla-
rekin.)*

Anton Ai, ai, aiii! Ez al da jenderik
laguntzeko?

IRUDITEGI AMARGARRENA

X

*(Sartzen dira presaka Alkatia, Nagu-
siya, Aguazilla eta Artzayak, eta guztiyak
esaten dute:)*

Guztiyak ¿Zer da, zer da?

Eskribaua Ijitua onek auzia irabazi eta
eztit nai pagatu.

Alkatia Zeñek esaten dizu ori zuri?

- Eskribaua* Berak. (*Presaka batere kontu-gabetu gabe.*)
- Alkatia* Ez al da bada mutuba?
- Eskribaua* Ez jauna.
- Nagusiya* Alkate jauna, egiñak ez du baliyo.
- Alkatia* Zer gertatu da bada emen?
- Anton* Eskribauari pagatu berak egin duben saltsa bat beste batekin.
- Alkatia* Tramposo bati beste aundiya-gua?
- Anton* Ba jauna.
- Alkatia* Bañan nola?
- Anton* Berak esan zian bedorrek esaten zian guztiari *Beee* erantzuteko, eta berari beste *Beee* batekin pagatu diyot zor diotana.
- Alkatia* Bai e? Eta justiziyaz orrela burlatu? Aguazilla. (*deika.*)
- Aguazilla* Jauna.
- Alkatia* Eskribaua eta Anton artzaya, giltzapian sartu beriala lotuta.
- Aguazilla* Ondo da. (*Lotzen ditu eta eramaterakuan erraten du jendiarri:*) Bat eta beste peste.

IRUDITEGI AMAIKAGARRENA

XI

ALKATIA, NAGUSIYA ETA ARTZAYAK

Alkatia Nagusiya, egingo da justiziya. Biyak kartzelan egongo dira Eskribauak egun da ogei arkumeak pagatu arte, eta beti gogoan iruki guztiak, nola gaizki dabillenak gaizki bukatzen duben.

Nagusiya Biba alkate jauna !

Guztiyak Bibaaaaa !

IRUDITEGI AZKENEKUA

XII

GUZTIYAK ETA AGUAZILLA TA KATHALIN

Aguazilla Anton Kaikuk bi itz nai emen ditu egin kartzelan sartu bannen len.

Alkatia Datozela bada. Solta zazkizu.

Kathalin (*etxetik aterata*)

¡Aita!

Eskribaua

Eta aitona

amandrearekin...

(*Gogo txarretik auztepaítuta.*)

Kathalin, ezkon zaitez

nai dezunarekin.

Anton

(*Aurreratuta, jendeari itz bereztarrarekin*)

Orra bada, jaunak.

Bidian arkitu det
festa onen jabia,
ta esan dit larrituba
ez dalako obia,
bakarrik nai lukela
berok barkatzia,
eta txalo batzuben
gaur guri ematia.

(*Artzayak eta beste guztiak juten dira
berriz mendiyan gora kantatzen danbolin-
ñaren lengo doñuan.*)

Beti umore onarekin
emen gera artzayak

gora bera irrintzika (*ojuba*)
menditik guztiak.
Dantzatu zagun bada
utzirik kaikubak,
neskatxa bana artuta (*ojuba*)
guazemak, mutillak.

*(Burtina jeisten da poliki poliki, ayek
goyetan agertziagatik.)*

BUKAERA

LENENGO LIBURUAK:

- 1: *R. Artola:*
SAGARDOAREN GRAZIYA ta beste ber-
tso asko.
- 2: *M. Soroa:*
GABON, ¡AU OSTATUBA!, ANTON
KAIKU.



1027884

JB-874

J